

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko irailaren 14a • II. urtea • 33. zenbakia • DOAN BANATZEKO

JABIER RETEGI

“Hiri unibertsitario handia sortu beharra dugu” /8-9

EZTABAIDA

Espainiako Itzulia Euskal Herritik pasatu beharko litzateke? /7

Goienka2a

Iritsi da era guztietako ikastaroak abian jartzeko garaia

ORDIZIAKO AZOKAK HIRU DEBAGOIENDAR SARITU DITU AURTEN

Ferietan onenak

Gure ibarreko hiru baserriar nabarmendu ziren pasa den astean, irailaren 5ean, Ordiziako azoka entzutetsuan. Hirurek sari garrantzitsuak jaso zituzten: Jose Arantzabal elgetarrak hiru urte eta erdi eta bost urte arteko ganadua lehenengo saria jaso zuen. Kontxi Izagirre antzuolarrak fruituen sailean lehenengo saria jaso zuen. Eta Juan Maiora bergararrak zortzi urte gorako lehenengo saria jaso zuen. Hirurak ere sariak jasotakoak dira beste hainbat ferietan. Debagoiendar hauek jasotako sari psanguratsuek adierazten dute baserri eta nekazaritzaren etorkizuna kolokan egon arren, gure bailaran, esaterako, baserrietan, nekazaritzan edo abeltzaintzan lan egiten dutenak ere fin dabiltzala. /2-3



Goitik behera, Jose Arantzabal, Kontxi Izagirre eta Juan Maiora. (BAN ARANTZABALENEKO AZKARATE)

Eta zapatuan, Bergaran

Ganadurik ez, ganadua Erramu Zapatuko ferian erakusten da eta, baina barazki, lore, fruitu eta gazten lehiaketa izango da zapatu goizean Bergaran. San Martin Agirreren omenezko jaietan, urtero legez, aurten ere ortuko produkturik onenak erakutsiko dizkigute inguruko baserri-tarrek. Sasoi ona sagarrak, madariak, porruak, tomateak, ardi gaztak... erakutsi eta saltzeko.

Iñaki Sáez omenduko dute gaur Mondragoeko euskalgintzako taldeek

Joan den zapatuan Sorluzeko preso bat bisitatzeraz zihoazela auto istripuan hil zirenen aldeko eta presoen sakabanaketa salatzeko, hainbat kale agerraldi egin dira astean Debagoienean. Hildakoetako bat, Iñaki Sáez amañarra, oso ezaguna zen gure arte-

an, Mondragoen batez ere, besteak beste, Txatxilipurdi elkartean lanean jardundakoa zelako. Euskalgintzan lanean diharduten hainbat taldek omenaldia egingo diote gaur, egubakoitza, 20:25ean, Arrasateko Seber Altube plazan. /3

Copreci kooperatibak Italiako Rampgasa enpresa erosi du

Copreci Italiako Rampgasa enpresaren akzio guztiak erosi ditu. Eragiketa komertzial horrekin, Copreci beste aurrerapauso bat eman du etxetresnetarako osagaien sektorean duen jardueraz nazioarteko bila-

katzeko ibilbidean. Horrez gain, Gas Egoketako negozioa ere indartu egin du. Izan ere, Rampgasa Italiako merkatuan liderra da gas sukaldeetarako “tubing” eta hodiaren sektorean. /4

Jose Antonio Mendikute izango da HUHEZIKO dekanu berria

Jose Antonio Mendikute eibartarra izango da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanu

berria. Aste honetan bertan izendatu dute eta Jesus Garmendia ordezkatu du karguan. MUK beste hainbat izendapen egin ditu. /3



LENIZ MOTOR

JUAN M. ZUAZUBISKAR

BASO, LORATEGINTZA ETA NEKAZARITZARAKO TRESNAK



Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78

VIKING

STIHL

Ordiziako azokan irabazle

Debagoieneko hiru baserritarrek sari garrantzitsuak jaso dituzte Ordizian egindako azokan

IKER BARANDIARAN

Baseri mundua euskaldunon iragana baino askoz gehiago da, edo hala izan beharko luke. Azken batean, izatez, gure sustraiak eta izaera halakoetan oinarrituta daude. Hala ere, egun Euskal Herriko baseri eta nekazaritza munduak bizi duen oraina eta espero duen etorkizuna ez ei dira oso baikorrak. Hala diote, batez ere, baserrietan eta bertan landutakoaz bizi diren baserritar gehientsuenek, eta eurak jabetzen dira, zalantza barik inor baino hobeto, mundu honek dituen zailtasunez.

Baseri bizimoduak eta Euskal Herriko nekazariak oro har dituzten arazo handien artean, aurki egiten hasi nahi duten Abiadura Handiko Trenak hondatuak dituen lurzoru guztien desagertzea, eta batez ere baserriko lanetan aritu ahal zitezkeen belaunaldi berrien hutsunea nabarmendu izan dituzte baserritarrek. Urrun jo gabe, puntu horretan ezkor agertu dira aste honetan elkarrizketatu ditugun hiru debagoiendar baserritarrek ere.

Hiru hauek sari garrantzitsuak jaso zituzten pasa den astean, irailaren 5ean, Ordiziako azoka entzutetsuan: Jose Arantzabal elgetarrak hiru urte eta erdi eta bost urte arteko ganaduaren lehenengo saria jaso zuen. Kontxi Izagirre antzuolarrak fruituen saillean lehenengo saria jaso zuen.

Eta Juan Maiora bergararrak zortzi urte gorakoen lehenengo saria jaso zuen.

Debagoiendar hauek jasotako sari esanguratsuek adierazten dute baseri eta nekazaritzaren etorkizuna kolokan egon arren, gure bailaran, esaterako, baserrietan, nekazaritzan edota abeltzaintzan lan egiten dutenak ere fin dabilzala. Esaterako, Antzuolan Uzarraga auzoan dagoen Bidurre baserriko Kontxi Izagirrek fruituak landatzen egiten du lan. Duela urte gutxi arte, oke-larako ganadua zuten, eta aurrerago esnea ere banatzen zuten. "Lan larregi da eta ez du ia dirurik ematen. Fruituekin afizio handiago dugu eta nahiago dugu horri eustea". Elgetako Jose Arantzabali, ordea, ganadua gobernatzeko zaletasuna bere aita-amengandik datorkio. Jose, orain, kaletarra bada ere, ganadua etxetik gertu dauka, eta baita ortua ere. "Elgetan gero eta ganadu gutxiago dago eta pena da. Egia esan, behiak zaintzea, pentsua ematea... lan asko du eta gastu handia, baina merezi du. Jasotako sariak, ordea, esker-tzen dira, animoak eta diru pika bat ematen baitute".

Bergarako Basalgo auzoko Iñarre baserrian bizi den Juan Maiorak sei-zazpi urte daramatza ganadurekin lanean, eta dagoeneko Espainiako Estatuko eta Euskal Herriko sariak jaso ditu. Maiorak berak lehiaketetan parte hartzeaz gain, askotan jotzen du beste azoka batzuk ikustera.



Zure gogoko kirola egiteko behar duzun material guztia.

Hemendik aurrera, markarik onenak eta zerbitzurik profesionalena oso hurbil izango dituzu.

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE-MONDRAGON

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA


JOSE ARANTZABAL/Elgetako baserritarra

"Gazteek ez dute halako lanik nahi"

Jose Arantzabalek ganadu saria ekarri zuen Ordiziatik. 15 ganadu buru dauzka, baina zazpi besterik ez dituen aurkeztu azokako lehiaketara, beti ere piriniarrek, noski. Ohituta dago azokatan ibiltzen, eta dagoeneko Elgetan, Bergaran eta Tolosan ere ibiltzen da lehia. Joseri gurasoengandik datorkio ganadua gobernatzeko zaletasuna

eta beti piriniarrek edukitzen ditu. "Arraza hoberena da, haragi hoberena ematen duena". Josek Ordizian lehia eta ikusmin handia egon zela kontatu zigun "puntuatzeko behiek bueltak eman behar zituzten, eta hainbeste jende artean ia ezin zuten".

Ganadu ona edukitzeko gauza asko zaindu behar ei dira. Hala diosku behintzat Josek:



"Arraza, ona eta garbia izan behar da, kaskoetik buztaneraino, kas-

ko eta adar punta gorriak ezinbestekoak dira. Horretaz gain, hanka bihurak baditu, ez du balio".

Ganaduaren alorren hausnarketa eginez gero, Arantzabal ezkor da. "Ganadua duela hogeit urte bezala ordaintzen dute. Okela prezio bikoitzean ordaindu beharko litzateke. Bestalde, gazteek ez dute lan hau hartu nahi".

KONTXI IZAGIRRE/Antzuolako Bidaurre baserrikoa

"Fruituak asko zaintzen ditugu"

Kontxi pozik etorri zen Ordiziako azokatik, baina lehenetik ere eskuratu zuen suriren bat halako azokan baten. Hain zuzen ere, dagoeneko hogeita bost rufo inguru baitauzka bere baserrian.

Bizitza osoa darama baserrian lanean, baina ganadua alde batera utzita azken aldian fruituekin bakarrik egiten dute. Astero-astero, Ber-

garan eta Antzuolan saltzen dute, eta iraganean Aretxabaletan ere bai. Horretaz gain, herri horietako denda batzuetan ere saltzen dituzte fruituak. Ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu, hiru mila bat landare-zuhaitz gazte landatuta dituztela.

Modu horretan, esaterako, pasa den Ordiziako azokara eramane zizuten fruituez gain,



hamabost sagar mota eta hamalau makatz klase eramane zizuten. "Gehi-

go ditugu" gaineratu zuen Kontxik, "hiru bat gabiltza lanean".


Aipatutako sari guztiak jasotzearen arrazoiez mintzatzean, "guk fruitu aniztasun handia daukagu. Bestalde, denek dakiten gauzak egiten ditugu, baina guk asko zaintzen ditugu. Beharbada, guk daukagun lurzorua oso ona eta eguzkitsua da fruituentzat, ez dakit".

JUAN MAIORA/Bergarako Iñarre baserrikoa

"Ganaduak begiratzekoa behar du"

Juan Maiora oso gustura dabil ganadua gobernatzeko dautan zaletasunarekin. Are gehiago, askotan azokatarra lehiatzera joaten bada ere, beste askotan ikustera ere joaten da. Pasa den asteburuan bilamancan izan zen, eta dagoeneko tresneria ikusita erudituta etorri zen. Aste-aste, ordea, Gernika batera joango da. Aurrez lanean ibilitakoa

bada ere, duela sei-zazpi urte ganadurekin hasi eta ez da gelditu, semea laguntzaille nagusi duela. Pozik dago Maiora Ordizian eskuratutako sariarekin, eta ganadua nola zaintzen ote duen galdetzean, zera erantzun zigun: "Denbora asko kentzen dit egunean. Adibidez, azoka baino 15 egun aurretik, barrura sartzen ditut, belar lehorra eman eta



egunero hiru bat ordu ematen ditut behiak garbitzen. Lan handia da

eta finean ez du dirurik ematen, baina oso gustuko dut".

Maioraren esanetan, Ordiziako bezalako azoketan ganadu ona izatea, buru ona edukitzea eta begiratzekoa izatea da garrantzitsuena. "Jende oso jakituna joaten da ganadua ikustera, eta ezin da badaezpada-koekin ibili. Horregatik hoberenak bakarrik eramaten ditut azoketara".

Bailaran, labur

KALE AGERRALDIK

Euskal presoek sakabanaketa salatzeko hainbat ekintza astean

Euskal presoek dispertsioa salatzeko zenbait ekintza izan dira Debagoieneko herri nagusietan oraingo astean. Izan ere, joan den zapatu goizean, bi gazte soraluzetar auto istripuan hil ziren eta beste bat larri zauritu, Lurdes Txurruka preso bisitatzerantz zihoazela, Avilara. Asier Heriz eta Iñaki Sáez dira hildakoak eta Irantzu Benito, Iñaki Saezen neskalaguna, zauritutakoa. Iñaki Sáez, 39 urteko amañarra, Sorluzen bizi zen, baina Mondragoekin, eta bereziki Mondragoeko euskalgintzarekin, lotura handia izan duen pertsona izan da. Emunen egiten zuen lan. Hori dela eta, kale agerraldiak izan dira astean. Bestalde, Iñakik Mondragoeko euskalgintzarekin izan duen lotura dela-eta, omenaldia egingo diote euskalgintzan diharduten Mondragoeko hainbat taldek. Omenaldia gaur, egubakoitza, izango da herriko plazan, 20:15ean. Honako talde hauek egiten dute omenaldirako deia: Emun, AED, AEK; EHE, Ekin Emakumeak, Euskalan baita Senideak elkarteak ere. Horrez gain, eta heriotza horiek direla-eta, Mondragoeko Udalbatzarra dispertsioa salatzeko duen mozioa eztabaidatzeko zen atzo, eguena, Senideak-Gureak elkarteak eskatuta. /UBANE MADERA

KALE ERASOAK

Arrasateko ertzain etxeari eraso egin zioten zapatuan 50 bat kaputxadunek

Zapatu gauean, 23:15 inguruan, 50 bat kaputxadunek Mondragoeko ertzain etxeari eraso egin zioten. 30 molotov koktel jaurti zituzten, eta kalteak eragin zituzten eraikinean eta Ertzaintzaren lau auto ofizialetan. Ertzaintzak adituzera eman duenez, ertzain etxetik gertu, Maala kalean, eztanda egin bariko 16 molotov koktel, txanoak, eskularruak eta jertseak aurkitu zituzten, guztiak ere kale erasoan erabilitakoak. Bestalde, astelehenean, goizeko seietan, 15 litro gasolinaz beteta zegoen plastikozko ontzi bat agertu zen Kutxak Bergarako Simon Arrieta plazan duen sukurtsalean. Horrez gain, kutxazainearen txartelak sartzekoa silikonaz estalita zegoen. /UBANE MADERA ETA MONIKA BELASTEGI

SALAKETA

Jasotako mehatxuen gainean balorazioa egin du Aretxabaletako alkateak

Anjel Bergaretxek, Aretxabaletako alkateak, pasa den aste-ko gertakarien balorazioa egin zuen martitzenean Aretxabaletako Udalean. EAJ-EAKO ordezkariaren mintuda azaldu zen, eta bi alderdien jarrera kritikatu zuen. Era berean, elkartasuna adierazi dioten herritarrei eskerrak eman zien Anjel Bergaretxek. Bestalde, Aitor Arantzabalek, Bata-suna alderdiko eskualdeko buruak, ere oso gogor kritikatu zuen EAJ-EA. Anjel Bergaretxek elkarrizketaren aldeko apustua egin zuen, horrelako ekintzak berriro gertatu ez daitezkeen. Gogoratuko duzue, Aretxabaletako alkateak mehatxuzko gutuna jaso zuen Udaletxean joan den abuztuaren 20an. Gutun-azalaren barruan, 9 milimetroko parabellum bala bat eta "hurrengoan ez duzu ikusiko, zuk eta zure senitatekoek sentituko duzue" zioen mehatxua aurkitu zituen. Mehatxua gaitzesteko, mozioa aurkeztu zuen Batasunak, eta alderdi horren zinegotzien botoekin onartu zen. Bilkuran ez zen EAJko eta EAKo zinegotzirik izan. /GORKA ETXABE

IZENDAPENAK

Mondragon Unibertsitateak kargu berriak izendatu ditu HUHEZIn

Mondragon Unibertsitateak kargu berriak izendatu ditu Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Jose Antonio Mendikute fakultateko dekanu, Juanjo Otaño Humanitate-Enpresako zuzendari eta Marian Iriondo Irakasle Eskolako zuzendari berriak izango dira. Jose Antonio Mendikute eibartarra fakultateko dekanu berria izango da eta Jesus Garmendia ordezkatu du karguan. Mendikutek 60 urte ditu eta doktorea da Ekonomia eta Enpresa Zientzietan. Besteak beste, Eroski kooperatibaren sortzaileetakoa da. /ENEKO AZKARATE

Urtea bukatu aurretik ospatzeko azokak

DATA	ELOSU	ARAMAIO	LEINTZ GATZAGA	ARRASATE
San Migelak	Mendi Ganadu Feria	Jubilatuen Eguna	San Milixenak	Santamasak
Urriaren 6an San Migeletan, Berri Egunean, Iñuri, ardi, Lidots, fruta, Barazki eta gazta lehiaketaz gain, Landare, ganadu eta artisauro erakuske- lako egongo dira.	Urriaren 12an Elosuarrez gain, jakina, urtero bergarar, azkoi- tiar eta azpeitia- rrez betetzen da Elosu, ganadu feria garrantzitsu honetaz gozatze- ko asmotan biltzen baitira.	Urriaren 27an Urriko azkenen- go zapatuan, Jubilatuen Egunean, hain zuzen ere, artisauro eta nekazal produktuen azoka ikusgarria egiten da urtero Aramaion.	Azaroaren 11n Egun osoan, Leintz Gatzagako frontoi estalia eta Herriko enparan- tza artisauro postuez bete egiten dira herriko elkarteek eguna girotzen dutel.	Abenduaren 22an Herriko jai politenetakoetan, fruta, barazki, gazta eta ezti lehiaketaz gain, hegazti, artisauro eta ganadu erakusketak egoten dira urtero.

BERGARA

SAN MARTIN JAIK

Berrogeita hamarretik gora salmahai bihar, zapatua, San Martin azokan

Azokarekin batera hainbat ekitaldi izango da asteburu osoan San Martin jaien barruan

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte, San Martin jaiak ospatuko dira Bergaran. Hainbat ekitaldi izango dira, horien artean, gaur, 19:30ean, Anaje Narbaizak egindako "Zura: arotzak eta etxegileak" aurkeztuko dute. Bihar, barazki, fruitu, gazta, etxeko lore eta lore moztuen lehiaketa izango da, 10:00etatik aurrera. Aukera aparta Bergarara hurbiltzeko azokazale izanez gero.

San Martin jaien egitarauen barruan, liburu bat aurkeztuko dute gaur Udaleko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean: "Zura: arotzak eta etxegileak"; Anaje Narbaizak bergararrak egindako azterketa lana da. 184 orrialdean, zurrak gizakiaren egunerokoa izan duen garrantzia jasotzen du eta lau atal nagusi ditu: sarrera historikoa, etxegintza, zura lantzeko teknikak eta arotz ogibidearen inguruko lexiko eta esamoldeak. Gaur aurkeztuko duten liburua Udalak bultzatutako "Bergara aldeko herbak eta langintza zaharrak" bildumako hiru garrena da. Bilduma horren bitar-



Bergara eta inguruko herrietako baserriko produktu ugari izango da azokan. ARTXIBOA

tez, galduta edo galtzeko zorian zeuden lanbideetako lexikoa, esamoldeak eta jakintzak jaso nahi dituzte.

SAGARRAK, GAZTAK, LOREAK...

Bertako produktuak izango dira protagonista nagusi San Martin ferian. Bergara eta inguruko baserrietako produktu ugari

egongo dira San Martin plazan zein Seminarioko patioan. Bihar irekiko dute, goizeko 10:00etan, eta eguerdira arte izango da. Gainera, lehiaketa izanik, barazki, fruitu, gazta, etxeko lore eta lore moztu ederrenak sarituko dituzte.

Horrekin batera, inauguratu berri duten Munibe plazan II.

Okela Gisatu Lehiaketa jokatu da, herriko sei harakinek antolatuta. Plaza berean, hau da, Muniben, jarriko duten txosnan, herriko odolosteak dastatu ahal izango dira.

PRESOEKIKO ELKARTASUNA

San Martin jaiak aurten ekarriko dizkiguten berritasunen artean, Bergarako Amnistiaren aldeko mugimenduak antolatu duen tonbola da. Egubakoitzetik domekara Munibe plazan egongo da, eta dispersioak presoen senideei eragiten dizkien gastu ekonomiko aurre egitea du helburu. Bergaran zazpi preso daude, eta urteko gastua hamar milioi pezetatik gorakoa da.

Horrez guztiaz gain, badira bi ekitaldi San Martinetan hutsik egiten ez dutenak: nagusien eta umeen danborradak, hain zuzen. Lehenengoa bihar, zapatua, izango da 22:30etik aurrera, eta aurten berritasun bat izango du, danborrada amaieran ez da eta San Martinen martiriorik egingo. Umeen danborrada, berriz, domekan izango da, 19:00etatik aurrera.

Copreci kooperatibak Rampgasa enpresa italiarra erosi du

AMAGIOIA LASAGABASTER

MCC taldeko kidea den Copreci kooperatibak Italiako Rampgasa enpresaren akzio guztiak erosi ditu. Eragiketa komertzial honekin, Coprecik beste aurrerapauso bat eman du etxetresnetarako osagaien sektorean duen jardueran nazioarteko bilakatzeko ibilbidean. Horrez gain, Gas Egoketako negozioa ere indartu egin du. Izan ere, Rampgasa Italiako merkantuan liderra da gas sukaldeetarako "tubing" eta hodian sektorean. Bere bezeroen artean Electrolux eta Merloni talde garrantzitsuenak daude besteak beste.

Coprecik bere aldetik ere, etxetresna elektrikoekiko ekoizlerik garrantzitsuenak ditu bezero moduan, eta datorren lau urteetarako egindako plan estrategikoaren arabera, gainera, hazkundeak iragarri ditu. Mexikon, Aretxabaletan, Txekiar Errepublikan, eta orain Italian dituen enpresez gain, epe motzean Brasilen kokatzeko negoziazioekin jarraitzen du. Epe luzeagoan, berriz, Asian ere lantoki bat erusteko lanean dihardu. Estrategia horiekin Copreci maila onen kokatuko da nazioarteko lehiakideen aurrean.

ELGETA

SAGARDO EGUNA

Sagardo Egunak elgetarrak alaituko ditu zapatuan

Tortilla lehiaketa egitarauko erakargarriena

IBAN ARANTZABAL

Udazkeneko jaiak moduan ezagutuko dute batzuek, baina aurten udazkena baino lehenago dator eta V. Sagardo Eguna izenarekin bataiatu dute Gaztetxekoek. Sagardo doan izango da, eta plaza erdi-erdian sagardo fresko-freskoa edango du gura duen guztiak. 18:00etan hasiko da tortilla lehiaketa, eta Gaztetxekoek iazko partaidetza

berdintzea espero dute. Irabazleei sariak banatu ostean bertsolariak izango dira, eta 21:30ean herri afaria 1.800 pezetaren trukean.

Herri afarirako txartelak eskuratzeko zein tortilla lehiaketan parte hartzeko, irailaren 13a izan zen azkeneko eguna.

Gauean ska doinuak entzun ahal izango dira Gaztetxean, Papparazzi (Katalunia) eta Akatz (Bizkaia) taldeekin.

OÑATI

LANAK HASTEAREN


Ubaio erreka bideratzeko lanak datorren astean hasiko dira

Eskolatxo eta Zubibarriko zubiak bota eta berriak egingo dituzte

AINTZANE IRIZAR

Arrueneko etxeen parean hasi eta frontoi osterainoko Ubaio erreka zati bideratuko dute, datorren astean bertan hasita. Zortzi hilabete iraungo dute lan horiek, eta Ubidi Construcciones enpresak egingo ditu. Lan horiek egiteko arrazoi nagusia uholdeak ekiditea da. Hasteko eta behin, erreka garbituko dute, hondoan dagoen zikinkeria guztia kentzeko. Behin garbituta, hormigoia botako dute hondoan, eta aldamenen forma inklinatua emango diete. Aldamenetan gelditzen den zonalde berdean, berriz, hainbat zuhaitz landatuko dituzte. Ur bideratzea egitean, aipatutako zatian dauden hainbat kurba pixka bat zuzenduko dituzte, eta hainbat puntutan, presa funtzioa beteko duten ur-jauzi txikiak egingo dituzte, uraren abiadura moteltzeko.

Proiektua egin zenean, Eskolatxoko eta Zubibarriko zubiak botatzeko asmoak zeresana eman zuen. Izan ere, Oñatiko hirigu-



Zubibarriko zubiak ere berritu egingo dute.

neko multzo historiko-artistikoa sailkatzen ari dira, eta hirigunean bertan daude bi zubi horiek. Azkenik, baina, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak elementu ordezkarriak direla adierazi berri du, eta bota egingo dituzte, berriak egiteko.

Hasierako proiektuan, bestalde, parroikia azpialdeko zatia

bideratzea ere aurrez ikusten zen. Hantxe, plaza azpian Ubaio erreka eta Arranoaitz errekek bat egiten dute, eta horrek korronteak sortzen ditu. Azkenean, arrisku berezirik ez dakarrelako eta bideratzeko lanak egiteko plaza gutxia jaso beharko litzatekeela, bideratze hori ez egitea erabaki zuten.

ELGETAKO
UDALA

LAN ESKAINTZA

Elgetako Kiroldegiko "Bola-Toki" taberna-jatetxearen ustiatetaz arduratzeko, jendea edo enpresa bat behar da.

Harremanetarako:
Elgetako Udala
Tel.: 943 76 80 22

ARAMAIO

BESAIDE EGUNA

Besaide Eguna ospatzeko deialdia egin du Orixol Mendi Elkarteak

UBANE MADERA

Urtero moduan, irailaren hiru garren domekan Besaide Eguna ospatzeko deialdia egin du Orixol Mendi Elkarteak. Aramaiotik bidertuko da guztia, gainera, izan ere, aurtengo Orixol Mendizale Elkarteak tokatu zaio Besaide Eguna antolatzea. Txalapartak emango die ongietorria Besaidera doazen mendizaleei, 11:30ean.

Gero, eguerdian, meza izango da eta 12:30ean Mendi Federazioako presidentearen agurra. Gogoratu, aurtengo Antxon Bandersek hartu diola txanda orain arte Federazioako presidente izan

den Pako Iriondori. Ospakizunarekin amaitzeko, herriko bertso eta trikitixa eskolako bertsolariak eta trikitilariak festa giroa jarriko dute Besaiden.

HISTORIA APURRA

1955. urtea ezkerreko ospatzen da Besaide Eguna. 54an, lau euskal mendizale Mont Blanc mendian hil

zirela-eta, mendian hil diren guztiak oroitzeko monumentua egitea erabaki zuen Euskal Herriko Mendi Federazioak. Orduetik hona, mendizaleek hitzordua izaten dute Besaiden. Esan bezala, mendian hil diren guztiak gogoratzen dituzte, eta, hil diren federatuen izenak irakurtzen dituzte.

Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Arabatik etortzen da jendea Besaidera: Gipuzkoatik Udaltatik zehar; Bizkaitik Kanpazartatik zehar eta Arabatik Tellamenditik edo Anbotostetik zehar.

Azaldu dugunez, Euskal Herriko Mendi Federazioa hasi zen Besaide Eguna ospatzen, baina, azken hamar urteotan hiru mendi talderen artean txandakatu dira lanerako: Mondragoeko Besaide, Elorrioko Erdella eta Aramaioko Orixol mendi elkarteak. Mendigoizaleen topagune bihurtu da Besaide Eguna eta aurtengo ere bertan elkartuko dira.

Zertzelada

Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Arabatik etortzen da jendea: Gipuzkoatik Udaltatik zehar; Bizkaitik Kanpazartatik zehar eta Arabatik Tellamenditik edo Anbotostetik zehar.

ARRASATE

EGITAMU OROKORRA

Egitamu Orokorraren gaineko erakusketa Monterron jauregian

Bi hilabetez izango da, jendearen iradokizunak eta kritikak jasotzeko


UBANE MADERA

Eguaztenean hasi eta azaroaren 9a arte, Egitamu Orokorra jendaurrean izango da Monterron Jauregian. Herritarrei ahalik eta informazio zuzenen eta argiena ematea da helburua, Egitamu Orokorrak arautuko du-eta herriaren antolamendua; hau da, datozen hamar urteetan-edo Udalak herrian egin nahi duena.

Erakusketaren aurkezpena Xabier Zubizarreta alkatea egin zuen, eta berarekin EAko eta EHko zenbait ordezkari eta Hirigintza Batzordeko zenbait langile izan ziren.

Erakusketaz gain, datorren astelehenera aurrera astelehenero, berbaldiak izango dira Egitamua erakusteko. Bi azalpen hitzaldi emango dituzte Hirigintza Saileko teknikariek, eta bi mahai inguru ere izango dira, bata Udaleko eta kanpotik etorritako teknikarien artekoa, eta bestea Hirigintza Batzordean lanean ibili diren Udaleko alderdi politikoenak.

Udalaren asmoa da herritarren galderak, iradokizunak, oharrak edo adostasun ezak jakitea, Arra-



Erakusketan Egitamu Orokorraren gaineko informazio guztia izango da. UBANE MADERA

sateren etorkizuna moldatzen herritarrek ere esku hartu dezaten. Alkateak adierazitakoaren arabera, behin erakusketa bukatuta, herritarrek egindako iradokizunak eta bestelakoak aztertuko eta kontuan hartuko dituzte Egitamua lantzeko orduan. Hori dela eta, erakusketa bisitatzeko ahalegin berezia eskatu die alkateak herritarrei. Han izango dute Egitamua erakusteko informazio guzti-guztia eta gainera, aditu bat ere izango da, azalpenak emateko.

AURREIKUSPENAK

Esan bezala, makina bat lan zehaztuko ditu Egitamuak, baina, aurreikuspen nagusiak honakoak dira: mendebaldeko saihesbidea egitea, motorgabekoen bide sarea ezartzea, antzinako hiriarren berrikuntza, Udala eta Bedoña auzoetan hirilurreko esparruak sortzea, hiri ehunaren ondoan dauden baserri multzoak hiri-lurrean sartzea eta trinkotasun txikiko etxebizitza esparru berriak eratzea.

LEINTZ GATZAGA

HERRIKO JAIEN KRONIKA

Jende asko eta giro polita zapatuan Dorletako Ama Birjinaren Egunean

Gauzez baino, egunez jende gehiago ibili da jaietan

ENKO AZKARATE

Normaltasunez eta jai giroan ospatu dituzte aurtengo Andramaiak. Egitarau zabala antolatu du jai batzordeak eta parte hartzea nabarmenezkoa izan da, batez ere, egunez antolatutako ekitaldietan; gauekoetan, pobretxoak izan da parte hartzea.

Zapatua izan zen egunik garrantzitsuenak. Dorletako Amaren ermitaren inguruan jende ugari batu zen, Gatzagatik bertatik zein ibarreko beste hainbat herritatik etorritakoak, batez ere, Eskoriatzakoak. Ohikoa den moduan, otxandioarrei harrera berezia egin zieten, baita herri bazkarirako tokia gorde ere. Mezan Setien jauna, Gipuzkoako gotzaina izandakoa, ere ikusi genuen. Meza ondoren, ostera, Andoni Egañaren eta Sebastian Lizasoren bertsoak harretaz entzun zituzten han batutakoek, txorizo eta gazta pintxoak dastatzen zituzten bitartean. Herri bazkarian eta ondorengo umeendako jolasetan

giro polita izan zen, baita domekako pilota partiduetan eta Araiko Musika bandaren emanaldian ere, euria izan arren. Txirrindulari lasterketa ere ondo irten zen.

Aurtengo, bi milioi pezeta gastatu dituzte jaietan. Joserra Agirreurreta alkatea jaien balora-

zio positiboa egin digu: "Gauzez ez da horrenbeste jende ibili, esaterako, zapatu gaueko rock kontzertuan. Baina, gainerakoan, jende dezente ibili da eta egubakoitz zein domeka gaueko erromerietan primeran pasatu du jendeak".



Dorletako ermita leporaino bete zen zapatuan. EA



Lizaso eta Egañaren bertsoak harretaz jarraitu zituzten. ENKO AZKARATE



Asko elkartu ziren pilotalekuan herri bazkarirako. EA

Zabalik

RUFINA
OLASAGASTI

Gatazka eta gu

Asteartean Ameriketako Estatu Batuetan aizandako erasoek asalatu dute mundua. Eta ez da gutxiagorako, eraso horiek burutzeak adierazten duen organizazio mailagatik eta horien ondorioak jasango dituen herritar kopuruagatik.

Baina telebistan hori ikusten nuen artean pentsatzen nuen ez direla kaltetu eta hildako guztiak berdinak, eta komunikabideetan guztiak ez dutela harrera bera merezi.

Ez nau pozten oraindik kontatu gabe dagoen jende kopurua hor hiltzeak, baina ezta ere aspaldi honetan misildun tanke israeldarren aurrean harrika ikusten diren palestinarren irudiak eta hauen hilketak.

Zer dakigu Nigeriako biztanleen artean gertatzen ari den borroka? Kaleetan pilatutako gorpuak ez dira zenbatu oraindik, zaurituak 900 lagunetik gora dira eta gutxienez 165 dira hildakoa, astearteko *Egunkariak* zekarrenez.

Zenbat dira honezkero Afrika aldetik pateratan etorri direnak eta zenbat bidean gelditu direnak? Inork ez dizkigu kontu horiek egin.

Zer gertatzen da Euskal Herriko presoak euren familietatik hain urrutira eramateko? Familiakoak edo lagunak izatea beste errurik ez dutenak zigortzen dira dirutan, denboran, eta heriotza eta guzti dakarzkien istripuetan.

Galderak, galderak, komunikabideetan erantzun gutxi dutenak.

Estatu Batuetako erasotara bagoaz, honek erakusten digu pertsona batzuek egin dutena, defentsako plana kasu honetan, -nahiz eta zaila izan-, beste batzuek asma dezaketela, guztiok baikara espezie berekoak.

Orduan, egoera honen aurrean, baita bizitzako beste askotan ere, bi jarrera har genitzake: lehen baino neurri zorrotzagoak eta defentsa sendoagoa jartzea, horretarako zapaldu behar direnak zapalduz edo guztiok dugula bizitzeko eskubidea onartu, eta elkarren errespetuan gatazkari arrazoizko irtenbidea jartzea.

Gutunak

Jolastu nahi dugu!

Hasi da ikasturte berria eta kalean gora eta behera ikusten ditugu haurrak motxila erraldoiak bizkarrean daramatzatela. Eskaparateak testu-liburuz josita daude eta supermerkatuetako pasillo luzeak eskolarako materialez leporaino daude. Baina... non daude jolas egiteko gonbidapenak? Zergatik ez dira guregana iristen jolas egiteko eskaintzak?

Badirudi jolas egiteko epea udarekin batera amaitu dela, eta udazken eta negu ilunak ikasteko gonbita besterik eskaintzen ez digutela. Jolas garaiari jartzen zaion "muga" hau ulertezina suertatzen zaigu, kontuan izanik haurrek jolas egiteko gogo berdintsua dutela urte guztian zehar. Hor-taz, non dago gakoa?

Esan genezake gizarteak ez duela kontuan hartzen jolas egiteak haur baten garapen prozesua aberasteko duen ahalmena. Haur batentzat jolas egitea arnasa hartzea bezain garrantzitsua da. Jolasaren bidez, modu naturalean, haurren potentzial guztiak garatuz doaz. Hala nola: afektibitate, alderdi psikomotorra, adimena, irudimena, zentzumenak, gizarteratzeko abileziak eta hauengatik guztiengatik ondorioztatu daitezkeenak. Jolasak ez dauka gure gizarte konpetitibo honetan merezi duen aipamena. Denbora-pasa hutsa izango balitz moduan, jolasa haurren egunerokotasunetik baztertu egiten dugu, beste ekintza akademikoei esparrua utziaz.

Esan bezala, ikasturtea hasi da eta guri dagokigu, aisialdi elkarte bat garen heinean, hezkuntza ez formalak duen garrantzia aldarrikatzea. Gaian adituek esaten duten moduan, "jostailurik garrantzitsuena jolas egiteko gogoa da", eta honetaz, haurrak ondo horniturik daude. Ezin esan, ordea, gauza bera geratzen zaien denboraz...

TXATXILIPURDI ELKARTEA
Arrasate

Asier eta Iñaki

Lerro hauek sentimendu kontraesanekin lidatzita daude. Iragan igandean, bi solidario handiri agur esan genien. Pertsona hauek bizitzaren azken arnasara arte solidaritatea eta konpromisoa eskaini ziguten. Zorionez, ezaugarri hauek Euskal Herriko seme-alaba askotan aurkitu ditzakegu. Asier eta Iñaki, Iñaki eta Asier, inongo beharrik gabe, gure senitarteko errepresialiatuei laguntza ematen dieten guztientzat eredu izango dira. Behin eta berriz, distantzia, inkomunikazioa eta dispertsioak dakarren injustizia guztiak hausten lagundu diguzue.

Igandeko omenaldian, errepresialiatuen senitartekoen aurpegietan amorrua eta tristura nabaritu genituen. Amorruea, dispertsio politika diseinatu eta mantentzen duten guztienganako (PNV barne) eta tristura, inoiz ezin izango dugulako behar bezala eskertu Asier eta Iñakik edo hainbat eta hainbat lagunak konpromiso anonimo honetan emandako guztia. Gure senitarteko errepresialiatuei irrifar bat, notizia bat edo elkarrizketa desberdin bat eramateko, astebukaerero errepideetan bizitza arriskuan jartzen duten gizon-ema-kumeak.

Soraluzen arnasten zen elkartasun solidario horrek Lehendakaria edo instituzio-etako ordezkariak faltan ez izatea ekarri zigun, nahiz eta ondo dakigun bezala, azkar asko azaltzen diren beraiei komeni zaien lekuetan, interes partidisten arabera. Hauen presentzia soberan ordezkatuta geratu zen, Asier eta Iñakiren erreleboa hartuko duten jende andana ikusita. Bertan elkartutako gazte eta nagusiak benetako mina sentitu genuen bi heriotza hauengatik, beste batzuk bezain ulertezinak, baina kasu honetan gutxiago, dispertsioak, Avilako espexera bidean eraman zuena, solidaritatea izan zelako.

Azkenik, hauen senitartekoei oroimen berezia igorri nahi diegu, eta esan, Senideak-Gureak ziur gaudela Iñaki eta Asier bezalako gizon emakumeek bihurtuko dutela errealitate herri honek dituen ametsak. Bitartean, jaso ezazue eskerrik maitagarrienak zuen samina konpartitzen dugun milaka senitartekoen izenean.

SENIDEAK-GUREAK
Arrasate

Ertzaintzaren jazarpen politikoa

Lerro hauen bitartez salatu nahi dugu Ljoan zen larunbatean, irailaren 8an, Irati tabernan gertatutakoa. Goizaldeko ordu bata inguruan, larunbat gauero bezala, taberna jendez beteta zegoen. Momentu horretan hamabost bat ertzain azaldu ziren taberna ingurura, enkaputxaturik, porrak eta peloteroekin. Iratsi bezain pronto, taberna kanpoan zeuden edalontziak apurtu zituzten, kartelak eta pankarta politikokoak lurrera bota eta han zegoen jendea izutu zuten. Bitartean, bederatzi ertzain taberna barrura sartu ziren eta bertan zegoen tabernariak galdetu zien: "¿A qué se debe su presencia?". Erantzun bakarra tabernaria bultzatu eta barran zeuden edalontzi guztiak porraz lurrera bota eta apurtzea izan zen. Ondoren, preso senideei laguntzeko zein Ihes Ekimena-ko itsulapikoak lurrera bota zituzten, taberna barruan geratzeko "ausardia" izan zuten mutil gazte talde bat iraindu eta mehatxatu zituzten, bertan zegoen beste tabernaria peloteroarekin momentu oro apuntatzen zuten bitartean.


Hau ez da Irati tabernara ertzainak modu honetan sartzen diren lehenengo aldia. Horregatik, azken hilabeteetan ezker abertzaleak eta gure egoitza politikokoak jasaten duen jazarpen eta mehatxu egoera oso grabea izanik, salaketa publikoki egitea beharrezkoa iruditzen zaigu. Nolanahi salatu nahi dugu hainbat komunikabideetan argitaratu den informazio faltsua. Larunbat gauean, -beste askotan bezala- ertzaintzaren presentziak ez zuen inolako funtsik, ez zen inolako erregistorik burutu ezta erregistorik burutzeko arrazoirik ere. Ertzaintzaren jarrera probokazio hutsa izan zen eta herri honen sektore politiko baten aurka jarrera biolento eta intimidatzailea besterik ez zen izan.

Azkenik, dei egiten diegu egoera antidemokratiko hau gainditzeko ardura duten agente politikoei, bitartekoak jar ditzaten.

BATASUNA
Arrasate

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Urteak dira Espainiako Itzulia Euskal Herriatik igarotzen ez dela. Egia da batzuetan Nafarroatik sartu eta irten egin dela tropela, baina egia da, era berean, garai batean Euskal Herriari jokatzeko zirela itzuliko etaparik garrantzitsuenak.

Anoetako belodromoak askotan bukatu izan da "Vuelta"ko etaparen bat. Urte batzuetatik hona, berriz, ez da ia hurbildu ere egiten, jada ez da etaparik amaitzen Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Bada Espainiako Itzulia Euskal Herriko errepedeetan

zehir ikusi nahi ez duenik. Baina badira txirrindularitza asko maite dutenak eta goi mailako txirrindularitza saioak zuzenean ikustea gustuko dutenak. Horiek gustura ikusiko lukete Espainiako Itzuliko tropela etxetik gertu pasatzen.

Espainiako Itzulia Euskal Herriatik pasatu beharko litzateke?

Gustatuko litzaidake, zale amorratua naiz eta



Ahal izan denean, Tourra Euskal Herriatik igaro da. Eta hori gertatu denean, antolatzaileek zein bertako erakunde, txirrindulari eta zaleek erantzun egin dute. Normala da, ikusita txirrindularitzak geurean sortzen duen ikusmina.

Nori ez zaio gustatzen goi mailako txirrindulari lasterketak nor bere herriatik pasatzean ikustea? Eta, txirrindulariei eurei, nola ez zaie, bada, gustatuko izerditan blai maldan gora doazela, herrikideen animuak gertutik

MIKEL LIZARRALDE
Txirrindulari ohia

entzutea?, edo etxe ondotik —ihes eginda bada, hobe— pasatzea?

Orduan, Tourra bai eta Vuelta ez? Zer gertatzen da? Zergatik ez da pasatzen Espainiako Vuelta Euskal Herriatik? Nire ustez, normaltasun osoz ikusi beharko genuke Vuelta Euskal Herriko errepedeetan zehar pasatzen.


Seguruen, antolatzaileen kontua da. Arazoak ekidite aldera, Euskal Herrira gerturatu ere ez eta kito, hemen beste inon baino txirrindularitza eta jakitun gehiago egon arren. Baina arazoak beste era batera ekidin daitezkeela uste dut. Berba eginda konpon daitezke arazoak, orain dela bederatzirte Indurainek irabazi zuen Tourra Donostian hasi zenean gertatu zen moduan. Baina uste dut Espainiako Vueltako antolatzaileek ez dutela sor daitezkeen arazoak konpontzeko interes berezirik. Politika kontuak dira eta inork ez dio zezenari adarretatik heldu nahi.

1982an, Munduko Futbol Txapelketa Espainiak antolatu zuenean, San Mamesen partiduak jokatu ziren eta asko izan ziren Ingalaterra ikustera Katedralera hurbildu ziren euskaldunak. Bestalde, Indurainek eta Olanok dominak eman dizkiote Espainiari eta Munduko Txirrindulari Txapelketa jokatzeko denean Espainiako elastikoarekin korritzen dute euskaldunek..., halaberrez izan arren, beste aukerarik ezean.

Hortaz, ez dut arazorik ikusten Espainiako Vuelta Euskal Herriatik pasatzen ikusteko. Niri gustatuko litzaidake, txirrindularitza asko gustatzen zaidalako.

"Ez dut arazorik ikusten Espainiako Vuelta Euskal Herriatik pasatzen ikusteko. Niri gustatuko litzaidake"

Arazoak ekiditeko, hobe bertatik pasatzen ez bada



JESUS ARANTZABAL
Txirrindulari ohia

Kirolak garrantzi handia dauka gure artean. Kirolari eta kirolzale asko dago Euskal Herrian, beste inon baino gehiago. Txirrindularitza izango da, bestalde, futbolarekin eta pilotarekin batera, jarraitzaile gehien dituen kirola. Jarraitzaileak eta zaleak ez ezik, beste inon baino txirrindulari gehiago dago hemen: gazte eta afizionatu mailan lan bikaina egiten da eta, ondorioz, euskaldunetz beteta dago profesionalen tropela. Ez nolana hiko txirrindulariak, gainera: Olano, Beloki, González de Galdeano, Laiseka, Osa, Odriozola oñatiarra...

Hori guztia horrela izanda, normala da hemen horrenbeste txirrindularitza lasterketa antolatzea. Goi mailakoak bakarrik aipatzearen, Euskadiko Itzulia, Euskal Bizikleta, Donostiako Klasikoa edo Euskadiko sei orduak. Zergatik hainbeste lasterketa? Batetik, beste inon baino hobeto antolatzen dakigulako eta, bestetik, zaleek eta txirrindulariek beti erantzuten dutelako.

Orain, berriz, Espainiako Vuelta dago jokoan eta fabritoen artean euskaldunak. Beste behin telebistatik jarraitu beharko dugu lasterketa, oraingoan ere ez da Euskal Herrira hurbilduko eta. Gogoan ditut Vuelta Anoetako belodromoan amaitzen zeneko garaiak, eta ez dut ahaztuko 1972ko amaierako etapa, Gasteiz-Donostia, irabazi nueneko.

Urteak dira, ordea, Vuelta bertatik pasatzen ez dela. Kirolari bakarrik begiratzen badiogu, ez dirudi oso normala inon baino jarraitzaile eta txirrindulari gehiago dagoen tokitik lasterketarik ez pasatzea. Hori ez dut ondo ikusten. Baina politika dago tartean. Gu ez gara espainolak eta politikak kirolak baino gehiago agintzen du. Txirrindulari izandakoa eta zalea naizen aldetik gustatuko litzaidake Vuelta etxe ondotik pasatzea. Ez dira urte asko Tourra Donostian hasi zela, eta gutxiago oraindik —hilabete pare bat ere ez— Somarribak irabazi duen Tourra Bilbotik hasi dela. Orduan, zergatik ez Vuelta? Oraingo, gauzak dauden moduan lagatzea izango da onena, bertatik pasatuko balitz arazoak baino ez lirateke izango-eta.

"Gauzak dauden moduan lagatzea da onena, bertatik pasatuko balitz arazoak baino ez lirateke izango-eta"

Gora eta Behera

ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA



Joan den domekan Arantzazun izan zen jendearen arteko giro bikaina nabarmendu nahi dut. Era berean,

Gipuzkoako gotzainaren hitzak azpimarragarriak iruditzen zaizkit. Herriaren eskubideak, giza eskubideak, legezko estatua eta horrelako hitzen erabilpena zeharo alderdikoia izaten dela esan zuen. Eskubideen alde baino, norberaren konbenientziaren alde egiten dugu sarritan. Bereko eskubideak, besteen aurka egiteko baino ez ditugu erabiltzen.

NEW YORKEKO ERASOA



Gizakiok ez dugu oraindik gizaki izaten ikasi. Gure kontraesanak eta adostasun ezak ez dakigu indarkeria erabili barik konpontzen. Oso kezkatu nago, eta zaila egiten zait ulertzea noraino egon daitekeen fanatizatua gizakia New Yorkekoa bezalako erasoak egiteko. Oihanean bizi gara oraindik.



JOSE MARI ASTIGARRAGA
Arrasateko parrokoa

Koplak

Kontxako diru eta bandera

Irailak bederatzirte Kontxara begira estropada jokatzeko han ari baitira.

Itsaso zakarra ta iluna eguna eta tristea berriz ikusi genduna.

Kiniela danetan Orio aurrena ta Kastrok irabazi hori hondamena

Orion keja Kastrok jo zula atzetik ta honek ez zihola ha bere kaletik

Apustu zaleentzat nahikoa galera Kastroruntz joan baitira diru eta bandera

Orioko lagunak eduki kontuan argi ibili Korta dabilen lekuan

IÑAKI PLAZAOLA

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Ondorio onik atera liteke EEBBen kontra egindako erasotik?

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin

SAILETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

Jabier Retegi

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA ETA MCCko TEKNOLOGIA ETA KALITATE ARDURADUNA

“Debagoienak eta Mondragon Unibertsitateak bat egin behar dute, horregatik hiri unibertsitario handia sortu beharra dugu”

Jabier Retegik (Bergara, 1937) batez ere hezkuntzan eta industrian jardun du Arrasateko kooperatiba taldean eta Eusko Jaurlaritzan. Besteak beste, Hezkuntza eta Industria sailburuorde eta Industria sailburu izandakoa da. Mondragon Unibertsitateko errektorea da gaur egun. Datorren urtarrilean erretiratuko da.

ENEKO AZKARATE

Erretiratzeko gogorik bai?

Osasun aldetik ondo nago eta oso gustura nabil lanean, baina erretiratzea legezkoa da eta ordua heldu zaidala uste dut. Aro berri bati ekingo diot eta neure gustuko lanetan murgilduko naiz. Asti gutxi eduki dudalako, orain arte egin ez ditudan gauza asko egin nahi ditut aurrerantzean, irakurri, esate baterako. Euskadiko historian, politikoa ez ezik gizarteari eta ekonomiarri lotutakoan, sakondu nahi dut.

Erretiratu aurretik, baina, oinarriak jarrita lagako dituzu.

Bai, alde horretatik pozik nago. Ondo prestatutako gazte jendea dago hemen. Azken batean, taldea osatzea da garrantzitsua eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko talde ona osatu dugula uste dut.

Iñazio Oliveri, MUko hurrengo errektorea izango dena, lanean hasita dago...

Bai, elkarrekin gabiltza dagoeneko. Oso pozik nago bera hona etorri izanagatik. Esperientzia handiko gizona da eta lagun handia dut. Baina Arrasateko koo-

peratibetako giroa, estiloa... ez ditu eza gutzen. Horretan dihardugu. Taldea osatzen dakien horietakoa da eta, nahiz eta hemengo ez izan, gure estilokoa da. Bestalde, hezkuntzan esperientzia handiko gizona da eta gure unibertsitatearentzat aberasgarria izango da hori. Gurea unibertsitate gaztea da, oso jende ona dago, baina gaur errektoretza hartzeko goizegi dela uste dut.

Lau urte baino ez ditu Mondragon Unibertsitateak, hazten dihardu, hortaz. Eta ikasle kopurua ere ohiko unibertsitateetan baino gehiago hazten ari da.

MUK baditu berezitasunak. Esan dugun moduan, gaztea da, berria da. Bestalde, gizartearekin, herriarekin eta industriarekin lotura handia eta zuzena dauka. Horixe da gure indarretakoa. Aurten, Goierrira zabaldu dugu unibertsitatea. Hango udal, enpresa eta ikastetxeekin lankidetzan jardun dugu horretarako. Ez da MUko egitasmoa Goierrin, baizik eta MU eta Goierriko enpresa, erakunde eta ikastetxeen artean landutako egitasmoa. Horrela ulertzen bada, arrakasta izango du. Horrez gain, besteen aldean, gurea unibertsitate txikia da, ez ditugu nahi 4.000 edo 4.500 ikasle baino gehiago. Zortzi urte barru kopuru horretan egoitea espero dugu.

Esku artean daukazuen hainbat egitasmoren artean, Mendeberrri eta Garaia azpimarra daitezke. Azal egiguzu zertan den Mendeberrri.

Mendeberrri hezkuntza proiektu berezia eta ezberdina da. Ikaslea izan behar da hezkuntza prozesu guztiaren protagonista. Hori lortzen ez badugu, alferrik gabiltza. Eta, protagonista esaten dugunean, ez bakarrik ezagutza jasotzeko, baizik eta gaitasunak, balioak, eleaniztasuna edo teknologia berrien erabilera ere lantzeko. Jakin behar dugu benetako arazoei aurre egiteko zer metodo erabili behar dugun eta talde lana nola egin behar dugun. Lankidetzarako gaitasuna, eztabaidatzeko gaitasuna, arazoei aurre egiteko gaitasuna, eta abar izan behar ditu ikasleak. Ohiko hez-

kuntzan ez dira arlo horiek lantzen, eta hori aldatu egin nahi dugu. Mendeberrin subjektu nagusia ikaslea da eta irakaslea ikaslearen laguntzailea da. Mendeberrri 800 bat milioi pezetako ikerketa proiektua da eta une honetan gure unibertsitateko 35 bat irakasle dihardute horretan. Ikasturte honetan fase experimentalarekin hasiko gara eta erdia hurrengo zortzi urteotan garatuko da.

Hizkuntzei dagokienez ere planteamendu berritzailea dauka hezkuntza egitasmo berri honek, ez al da horrela?

Bai, ikaslea gauza izan beharko da hiru hizkuntza jakin eta eskolan zein lanean erabiltzeko. Ikasgai batzuk euskaraz emango dira, beste batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk ingelesez. Gaur egun gizarteak eskatzen du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez jakitea. Bestalde, unibertsitate barruko harremanak euskaraz izango dira. Dagoeneko horretan hasiak gara. Une honetan, Zuzendaritza eta Errektore batzordeetako batzarrak euskaraz egiten ditugu. Geroago eta euskaldunagoa izango da unibertsitatea.

Bestalde, Garaia egitasmoaren bultzatzaile nagusietakoa izan zara. Zelan dago kontua?

Abian. Urtarrilean hasi ginen lanean. Lurrak erosten, hirigintza planak... egiten dihardugu. Unibertsitatearekin lotutako ikerketagunea izango da. Enpresetako ikerketa egitasmoak bultzatuko dituen eta unibertsitatearekin lankidetzan arituko den gunea izango da Garaia. Bide onetik doa, indar handiz eta hasieran pentsatutakoa baino azkarrago.

Ikerketagunea Arrasaten kokatu arren, ibar osoari eragingo dio Garaiak?

Bai, eta ibarreko udal guztiak inplikatu dira egitasmoan. Bestalde, esan nahi dut unibertsitateak mila ikasle baino gehiago ekarriko dituela, horrek etxebizitza gehiago eskatuko ditu, azpiegitura egokiak bultzatu beharra... Hortaz, ibarrak eta unibertsitateak bat egin behar dute. Horrek esan nahi du hiri unibertsitario handia sortu beharra dagoela eta, ondorioz, zerbitzu

IÑAZIO OLIVERI

“Taldea osatzen dakien horietakoa da eta, nahiz eta hemengo ez izan, gure estilokoa da. Bestalde, hezkuntzan esperientzia handia du eta hori aberasgarria da guretzat”

MENDEBERRI


“Mendeberrri hezkuntza proiektu berezia eta ezberdina da. Ikaslea izan behar da hezkuntza prozesu guztiaren protagonista. Hori lortzen ez badugu alferrik gabiltza”


DEBAGOIENA EGITEN

“Oraindik ez dago ibarreko ikuspegi orokorrik, udal bakoitza bere aldetik dabil egitasmo orokorrek egiten. Horri buelta eman behar zaio”

AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOAK

“Ganorazko azpiegitura teknologikoak ez baditugu, ezin izango dugu zerbitzu egokirik eskaini, eta hori konpontzeko lanean hasiak gara”





JUAN MANUEL BERRUETA

berriak bultzatu behar direla. Bestalde, unibertsitatea herrian integratu behar da. Esaterako, kirolean moduan, beste hainbat arlotan elkarrekin lan egin behar dute unibertsitateak eta herriko taldeek. Komunikazio azpiegitura teknologikoak bultzatzeko lanean hasi gara.

Eta erronka horiei guztiei aurre egiteko, badaukagu ondo prestatutako jendea hemen?

Bai, baina gazteei mezu bat bidali nahi genieke. Datorren gizartean ondo prestatutako goi mailako jendea faltako zaigu, doktoreak beharko ditugu. Eta, hemen ez dazkagunez, kanpotik ekarri beharko ditugu. Horregatik, gazteei esan nahi diet ondo presta daitezela eta doktoretza egin dezatela, ez daitezela erdi mailako ikasketekin geratu. Gaur egun, gainera, erraztasun handiagoak daude atzerrian ikasteko.

Arrasate, Oñati, Eskoriatza..., Bergara ez da alde batera geratzen?

Bergarak historia dauka. Errege Seminarioak, esaterako, balio handia dauka. Une honetan, hala ere, Estatuarena da seminarioa eta ondo legoke ahal den lasterren hemengo erakundeen eskuetara pasatzea. Baina arazoa ez da hori bakarrik. Bergara bera mugitu egin behar da. Baina ez Udala bakarrik, bergararrak ere mugitu egin behar dira. Bergarako eskola profesionalarekin eta Miguel Altuna Institutuarekin harremanak bultzatu nahi ditut. UNED ere hor dago eta gure unibertsitatearekin lankidetzan gauza asko egin daitezkeela uste dut. Epe ertainera, ikusi beharko genuke gure unibertsitateko zer koka daitekeen Bergaran. Baina, hala ere, han edo hemen kokatu edo ez kokatu, ibar osoa hiri handi bat dela esango nuke.

Orain dela hainbat hilabete, Juanito Zelaia enpresari oñatiarrak Goienkarian esan zuen, beragatik balitz, ibar honetan ez lukeela enpresa edo lantegi gehiagorik jarriko. Nahikoa zeudela eta lantegiak kanpora aterako lituzkeela. Zer deritzozu?

Ez nago guztiz ados horrekin. Zer enpresaren gainean ari garen, ados egon naiteke planteamendu horrekin. Manufaktura fabrikak jartzeko, esaterako, ez dago nahiko toki ibar honetan eta, beharbada, Gasteiz inguruan jarriko nituzke. Baina goi mailako ikerketa lantegiak edo ezagutzaren enpresak deitzen diotenak, hau da, unibertsitatearekin lotuta daudenak, hemen jartzearen aldekoa naiz. Zerbitzuetako edo ikerketako enpresa selektiboak bultzatu beharko genituzke ibar honetan.

Ekonomikoki hain aurreratua izan arren, ibar honek baditu hainbat gabezia.

Bai, errepideak, esaterako, eskasak dira, nahiz eta orain hobetzen eta berriak egiten diharduten. Baina hortik aparte beste hainbat azpiegitura gabezia ere baditugu, adibidez, kulturen eta kirolean. Arlo horietan ez dago ibar osorako planteamendurik eta hori beharrezkoa da. Espero dut noizbait guztiondako kirolgune garrantzitsu bat egitea, edo ibar mailako futbol talde bat, edo ganorazko zinema aretoak... Derrigorrezko zerbitzuak dira. Ikasleentzako etxebizitzak ere beharko dira... Hutsune handiak ditugu, bai. Oraindik ez dago ibarreko ikuspegi orokorrik, udal bakoitza bere aldetik dabil egitasmo orokorrak egiten. Horri buelta eman behar zaio.

Azpiegitura teknologikoak eta hainbat zerbitzu bultzatzeko lankidetzan zabilzate unibertsitatea, Euskaltel, erakundeak, Goiena... Zelan dago kontua?

Ganorazko azpiegitura teknologikoak ez baditugu, ezin izango dugu zerbitzu egokirik eskaini, eta hori konpontzeko lanean hasiak gara. Unibertsitateak, MCCK, enpresek, hedabideek eta abarrek zerbitzu aurreratuak eskaini ditzakete, baina horiek bultzatzeko azpiegitura egokiak behar dira. Horregatik, ibarreko udalekin eta Mankomunitatearekin eta Euskaltelekin lankidetzan gabilza. Argi eduki behar dugu zer egin behar dugun eta zer epetan egin behar dugun, lehenbailehen egin beharrekoa da-eta.

“Egin nahi duten Unibertsitate lege berria atzerakoia da”


Garaikoetxearen lehenengo gobernuan Hezkuntza sailburuorde izan zinen Etxenikeren departamentuan. Hezkuntza transferentzia guztiak negoziatzea eta Euskadiko Hezkuntza sistema abiatzea egokitu zitzaizun. Orain, berriz, Estatutua betetzeko geratzen diren transferentzien eta Unibertsitate lege berriaren gainean asko egiten da berba. Hase-re dira hemengo buruzagiak...

Espainiako gobernuak gure hezkuntza sistema kudeatzeko oztopoak jarri nahi dizkio Jaurlaritzari, Unibertsitate lege organiko berriarekin. Eta, Jaurlaritzari ez ezik, unibertsitate publiko zein pribatuei ahalmena murriztu nahi die.

Unibertsitateek ahalmena izan beharko lukete beren modura antolatzeke eta kudeatzeko. Lege zentralista, inboluzionista eta atzerakoia dela uste dut. Bestal-

de, gaur egungo gizarteak izugarritzko eta etengabeko aldaketak bizi ditu, eta lege berri horrek ez dio horri erreparatzen. Lehengo egoerari erantzuten dion legea dela uste dut. Ez die etorkizuneko aldaketei erreparatzen.

Esperientzia berriei aurre egiteko eta datorren gizarteari egokitzeko malgutasuna beharrezkoa da. Eta lege berri horrek ez du hori kontuan hartzen.



JUAN MANUEL BERRUETA

Podiuma

Iker Larrea | TRIATLETA |

Joan zen abuztuaren 4an Frederician (Danimarka) jokatuak Iron Man proba amaitu zuen, eta zapatuan, irailaren 8an, Espainiako triatloi txapelketan hartu zuen parte Aguilasen, Murtzian. Triatloian aritzen den lehendabiziko urtea da, eta emaitza aipagarriak lortu ditu Iker Larrea 24 urteko antzuolarrak. Bergarako Antxintxika taldeko kidea da eta, triatloi denboraldia bukatuta, Behobia-Donostia lasterketa eta Donostiako maratoia prestatzen hasi da orain.

Zelako lasterketa egin zenuen zapatuan, Espainiako triatloi txapelketan?

Distantzia olinpikoko proba zen, hau da, 1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan eta beste 10 korrika. Igeriko proba itsasoan zen eta ura epela zegoenez, antolatzaileek neopreno jantzi barik igeri egitera behartu gintuzten. Ni neoprenoarekin moldatzen naiz hobeto. Dena dela, ez dut ondo igeri egiten eta, horrez gain, maila bikaineko triatletak ziren txapelketan. Igeri egiten sufritu nuen gehien. Txirrindularitza probako ibilbidea nahiko laua zen, eta korrika probara nekazuta iritsi arren, gustura egin nuen antxintxika. Azkenean 2 ordu eta 25 minutuko denbora egin nuen, eta nire kategorian, 20 urtetik 25 urtera bitarteko artean, 60 partaidetik 41. postuan sailkatu nintzen. Sailkapen orokorrean, berriz, 155. postuan heldu nintzen, eta 248



Iker Larrea antzuolarra Antxintxika triatloi taldean hasi da aurten. E.M.

“Maila bikaineko triatletak ziren Espainiako txapelketan eta igeriketa proban sufritu nuen gehien. Hala ere, ondo bukatu nuen”

“Urtarrietik izan gara entrenatzen Danimarkako Iron Man probarako, baina merezi izan du. Oso esperientzia ona izan da”

lagun ginen.

Danimarkako Iron Man probaren ostean, Espainiako txapelketa behar bezala gertatzeko astirik izan duzu?

Danimarkatik bueltan jaso nuen Espainiako txapelketan parte hartzeko gonbidapena, karta bidez. Urte osoan hainbat probatan lortutako emaitzen ondoren, nire kategorian sailkatzea lortu nuen, eta

Danimarkatik bueltan, abuztuaren azken astean, hasi nintzen txapelketa gertatzen. Fredericiako Iron Manarekin triatloi denboraldia bukatutzat ematea nahi nuen, baina zertxobait gehiago luzatu behar izan dut. Abuztuan berriz ere entrenamenduei ekitea kosta egin zitzaidan hasieran, baina uste baino hobeto ibili naiz.

Zer moduzkoa izan

da Danimarkako esperientzia?

Oso ona. Antxintxika taldeko lau lagun joan ginen, eta laurok bukatzea lortu genuen [3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta maratoia korrika]. Igeriketa eta bizikleta nahiko lasai hartu nituen eta korrikako proban, aldiz, nahiko sufritu nuen. Hala ere, errepikatze gogoz etorri gara. Datorren urtean ere uztaile aldera horrelako beste probaren bat egitea nahi genuke. Urtarrietik hona entrenatzen izan gara, baina merezi izan du. Oso esperientzia positiboa izan da.

Zenbat orduz entrenatu zara egunero Iron Man lasterketa gertatzeko?

Egunaren arabera. Jeneralean egunero bi kirol tartekatzen nituen: egun batzuetan 45 minutu igerian eta beste bi orduz bizikletan, eta hurrengo egunean aldatu egiten nuen. Astebukaeretan entrenamendu luzeagoak egiteko aprobetxatzen genuen: 120 kilometro bizikletan eta 20 korrika esate baterako. Triatloiak daukan gauza on bat hori da: kirol batekin aspertzen bazara, beste bi dituzula aukeratzeko. Gure kontura entrenatu izan gara, baina Karlos Baleztana antzuolarrak Iron Man probak eginak zituenez, haren gomendioak oso baliagarriak izan zaizkigu.

Datorren denboraldiari begira, zein asmo daukazu?

Lehen urtea izateko oso gustura ibili naiz aurten, eta datorren urtean antzeira ibiltzearekin konformatuko nintzateke.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Patxi Murgoitio

Atleta



Murgoitio junior mailako Euskal-Nafar kros txapeliduna izan zen.

Espainiako txapelidun eskolarteko txapelketan.

Bergara eta Atl. SS taldeetan aritu zen.

Profesional mailako pilota epailea da.

Udalok Kabuena baserrikoa, Patxi Murgoitio txikitatik azaldu zuen atletismorako zaletasuna: “mendian askotan ibiltzen nintzen korrika, eta Arrasatetik Udalara ere behin baino gehiagotan arineketa joan behar izaten nuen, baserrira agindutako orduan heltzeko. Behin, eskolan pilotan jolasean ibili eta gero, 13 minutuan igo nintzen Erguinetik”. Arrasateko Eskola Profesionala ordezkatuz, 15 bat urte zituela konpetitzen hasi zen eta 1.000 metroko oztopolasterketan Espainiako errekorra lortu zuen. Espainiako eskolarteko txapelketan, Madrilen, bere marka hobetu eta txapela eskuratu zuen Patxi. Krosean ere junior mailako Euskal-Nafar txapelketa irabazi zuen, Iruñean. Handik gutxira Bergara Kirol Elkartearen atletismo taldean hasi zen: “sasoi hartan Arrasaten ez zegoen gizonezkoen atletismo talderik eta Bergarak, berriz, talde ona zeukan, batez ere Enrique San Nicolas entrenatzailearen ahaleginari esker. Klubun arteko Espainiako kros txapelketan hirugarren sailkatu ginen 1960ko hamarkadaren amaieran, Madrilen”. Neguan krosa eta uda partean pista tartekatzen zituen: “Iturripen entrenatzen ginen eta gehienbat fondo erdia egiten nuen: 800 m., 1.500, 3.000 metroko oztopolasterketa, 5.000 metrokoa... tokatzen zena”. Bergarako taldean aritu ondoren, Atl. San Sebastian taldearekin bi urte eman zituen. Soldaduska egitera Jerezera joan behar izan zuen, eta militarren arteko eskualde mailako txapelketan zazpi domina lortu zituen, Sevillan. Atletismoa utzi ondoren Arrasateko errugbi taldean ere jokatu zuen.

Patxi Fagor Ederlanen dabil lanean, eta pilota epailea ere bada duela 10 bat urtetik. Sebastian Coe atleta zuen gogoko, eta pilotan Titinen jokoa gustatzen zaio gehien. /E.M.

“Neguan krosa eta uda partean pista egiten nuen, gehienbat fondo erdiko lasterketak: 800 m., 1.500, 3.000 metroko oztopolasterketa, 5.000 metrokoa...”

Patxi Murgoitio • Udala (Arrasate) • 1951



Nire Pronostikoa

JOSE MARI BARRENA / Arrasate Triatloi taldeko presidentea

Ez dakit Realak ondo jokatzeko hasiko den, baina inork baino behar handiagoa du. Athletic, bestalde, aurreko denboraldian baino hobeto dabil, baina talde galiziarra oso sendoa izateaz gain,


denboraldia bikain hasi du. Mallorca eta Alaves ondo hasi diren bi talde dira, eta berdinketa izango dela uste dut. Azkenik, nahiz eta Osasunak etxean jokatu, Bartzelona erraz nagusituko da.

Oraingo astebukaerako partiduak

A/ Realak	2	Celta	0
B/ Deportivo	1	Athletic	0
C/ Mallorca	1	Alaves	1
D/ Osasuna	0	Bartzelona	2

Euskara ikasteko hamaika bide omen daude...

aek-n onena



Euskara ikastaroak

Maila guztiak / EGA eta Alfabetatze / Matrikula epea: irailak 24



Akulu aek euskaltegia
Masterreka 13, behea · Bergara
Tel.: 943 76 05 18

Erdu aek euskaltegia
Garibai 14, 3 · Arrasate
Tel.: 943 770 369

Udalaren laguntzaz beka sistema



Ormazabal

2001
02
Sukaldeak



Ormazabal

Sukaldeak • Bainuak

Santa Marina, 4
Tel. 943 78 30 58

Apaolaza, 2
Tel. / Faxe 943 78 16 40

20560 OÑATI

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko irailaren 14a

Kultura
eta
Aisialdia



Irailaren
14tik 21ra

Pintura Yoga Euskara Bertso laritza
Dantzak Argazkigintza Musika Zera-
mika Kar Informatika
Sukaldar olfeoatai-chi
Taila Mak zina Aerobic
Malabarak Gim gintza
Lorezaintza Go ologia
Larrugintza er-kusioa
Enologia Tri nak Bideoa
Gimnasia z Internet

Matrikula
epea
zabalik

Irailari agorrila deitzen zaio bizkaieraz. Batzuk uste dutenez, hitz hori "agorte hil" izenetik dator. Eguraldi aldetik baliteke hala izatea zenbait urtetan; baina kultura bizitzari dagokionez, behintzat, guztiz kontrakoa da agorrila. Izan ere, sasoi honetan has gaitezke jasotzen, fruituak edo loreak balira bezala gorpuzten hasten diren ikastaroen uzta. Irailean hasi eta urte bukaerara bitartean, Debagoieneko herrietan hamaikatxo ikastaro jarriko dira abian, ordu-tegi eta gustu guztietarako aproposak: batzuk laburrak, ikasturteko iraupenekoak besteak; honek musikare-

kin du zerikusia, hark gorputza eta izaera lantzen eta sendotzen ditu; batak umeak elkartzea du helburu, bestea nagusiendako da egoki... Kontua da laster izango dela zabalik ikastaro guztiotan parte hartzeko izena emateko epea. Interesik baduzue, adi egon, beraz. Eta oraindik ez baduzue tentazio-rik, irakur ezazue zer nolako eskaintza dagoen. Izan ere, ikastaroa eskola-urtearekin pareka dezakegu: zer ikasi ematen du, baina adiskide berriak egiteko parada ezin hobea ere bada. Eta ikasturtearekin gertatzen den bezala, ikastaroa bukatzerakoan, penaz esaten dugu adio, eta dantzara! /14

Ikastaroak

Irailean, kultura ikastaroak abian

DANTZA, YOGA, ZERAMIKA, ANTZERKI, INFORMATIKA... TAILERRETARAKO IZENA EMATEKO EPEA LASTER ZABALDUKO DA

Udako nagjak astindu eta mar txan jartzeko ordua iritsi zaigu. Iraila lanarekin lotzen du jende askok, baina aisialdirako garai aparta ere bada. Debagoieneko Udalek eta hainbat kultura elkarteek ikastaro sorta oparoa antolatu dute. Ondo pasatu, gure jakituria aberastu eta giza harremanak eratu edo sendotzeko aukera eskaintzen digute hitzordu horiek. Hona hemen prestatu dizuegun errepasotxoak. Egin zuen aukera!


Kultura etiketapean, ekintza ugari batzen dira. Batzuk lasai-lasai egitekoak dira, besteek gorputza astintzea eskatzen dute. Hor, erdibidean daudenak ere badaude: yoga, adibidez.

Geroago eta ezagunagoa da yoga gurean, eta lobarrean hainbat elkarte eratu dira. Arrasatekoak, adibidez, hil bukaeran zabalduko du izena emateko epea. Yogaz gain, masaje ikastaroa ere antolatu dute. Parte hartzeko, 943793576ra deitu besterik ez duzue.

Dantza, txangoak...

Gorputzari mesede egiten dioten ekintza dezente gehiago ere aurkituko ditugu Mondragoen. Ekin Emakumeak elkarteak, adibidez, saloiko dantza ikastaroa eskaintzen du, hastapen eta sakontze mailatan. Izena emateko epea urriaren 11n bukatuko da. Gorputza baino, eskuak mugitu gura badituzue, eskulan ikastaroan parte har dezakezue; baina, hori bai, irailaren 21a baino lehen erabaki beharko duzue! Zeramika tailerra ere antolatu du Ekinek, urriaren 17tik abenduaren 19ra bitartean. Eta kultura eta ariketa fisikoa uztartzeko, Karrantzako kobetara txangoa baino hobirik ez dago! Gainera, erretiroa, elikadura, moda... eta beste hainbat gai jorratuko dituzte udazkeneko antolatutako hitzaldietan.

Gorputzarekin zerikusia badu baita AED elkarteak prestatu duen beste ikastaro batek: antzerki tailerra, nerabazarotik gorakoei zuzendutakoa. Helduei parte hartzeko dei berezia egiten die euskara elkarteak. Dözena bat saio izango dira, eta bukaeran, antzerki lanen bat taularatuko du taldeak. Bestalde, perretxiko sasoi iristen denerako, mikologia ikastaroa ere antolatu guran dabil AED, perretxiko motak bereiztu eta hobeto gozatu ahal izateko. Hori, AEDren bertso eskola ahaztu barik; azken horretarako izena emateko epea zabalik dago. AED zein Ekinekin aukeretan interesik baduzue, deitu 943712117 telefonora.



Txatxilipurdi elkarte arrasatearrak 18 urtetik gorakoendako begirale ikastaroa ere abian jarriko du urrian. Harremanetan jartzeko, deizazue 943795446ra.

Margolaritza

Arrasateko Udalak, urtero bezala, margo ikastaroa jarri du abian. Irailaren 17an zabalduko da izena emateko epea. Lanegunetan eta zapatu goizetan izango dira esko-

lak. Eta euskal kulturen sakonduz gero, badago beste aukera bat: Udalak, Lore Gazteak dantza taldearekin batera, antolatu duen dantza ikastaroa. Urri hasieran ekingo diote horri, eta Santamas jaietan ederki dantza egiteko prest izango dira parte hartzaileak. 12 urtetik aurrerakoendako da ikastaro hori. Udalgaihiene bezala, Mondragoekoak irailean hasten ditu ikastaroetako prestakizunak, hortaz, litekeena

da laburtutako eskaintza hori udazkenean zehar ugaltzea.

Jaietarako dantzan ikasi

Aretxabaletari dagokionez, San Migeletarako prestatzen ari dira. Hori dela eta, Udalak oraindik ez ditu lotu kultura ikastaro gehienak. Laramendi euskara elkarteak, ordea, hitzaldiak, diaporama emanaldiak eta kontzertuak antolatuko ditu urritik aurrerako. San Migeletan dan-

tza egiten irakatsiko digu mendik, guk hala gura izanaz. Eta jairik jai, Gabonetaraino az, orduko plater tipikoak eta tarianoak egiten ikasi ahal dugu elkartearen beste ikastaroen bidez. Elkarte horrek hainbat manetan jartzeko, 943770970 zenbakira. Azkenik, txabaletako Okila elkarteak gintzako hastapen ikastaroa antolatu du, urriaren 1etik aurrera. kultura, jo Udaletxera, kultura etxera edo tailaginen egoitzara.

Bergaran, urri aldean hasten dira ikastaro gehientsuak. Udalak yoga eta brikolaje tailerrak ipiniko aukeran; eta, aurten lehenengo baita informatika hastapen ikastaroa ere. Guztietarako izena emateko epea irailaren 17tik 21era izango da; lehenengo bietarako, jaietara zate sailera, eta hirugarrenetara Enplegu sailera. Bergaratik muga barik, bertako Jardun euskara elkarteak ere bere aukera aurkeztuko eskulan eta elikadura heziketa lerrak, guztiak urrian hasteko.

Eskulanak nagusi

Eskulanak izango dira nagusi urteko beste hainbat herritan, baina, ti kasu. Han, zeramika, margolaritza, zurgintza, puntu eta informetika tailerrak antolatu dituzte. San Migelen ondoren hasiko dira Argibideetarako, Oñatiko Kulturako deitu beharko duzue, 943783126 telefonora. Hango yoga tailerra martxan dago honez gain, 943783126 duzue telefonora.

Eskoriatzan ere ikastaroak antolatu berbera da protagonista: Udalek Amuska emakume taldeak bost eskulan, larru eta pintura tailerrak eskainiko dituzte urri hasieratik aurrera. Gehienak 30 ordukoak izango dira.

Eskuen trebakuntza jorratuko gain, entzumenarena eta oinaren jorratuko dute Elgetan, musikari kiti eta dantza tailerrekin eskulanen udeletan ez bezala, Elgetan ikastaro guztiak urte osokoak izango dira. Antzerkoak izango da Antzerko ikastaro sorta: han, saloiko dantza margolaritza, masaje eta garbitze jardunaldiak ipiniko dituzte. Margolaritzarena ez beste guztia aurrenekoz abiaraziko dituzte. dearen eskakizunak direla eta.

Horiek izango dira, gutxi gero behera, debagoiendarrok antolatuko izango ditugun ikastaroak. musikaz gain, baina, musika, euskara, tza, abesbatza eta kirol elkarrekin ikasturte berriari ekingo dituzte. urte osorako eskoletarako deitu emateko epea ere irailean zabalduko dute.

"Ibarreko herri askotan eratu dira yoga taldeak, eta urrian abiaraziko dituzte ikastaroak"

"Udazkeneko tailerrez gain, musika, dantza eta kirol elkarten ikasturteak ditugu aukeran"

Ikuskizuna

Disko jartzaileak, musika zuzenean eta antzerkia aire librean

Nire aukera

Funkya eta antzerkia Arrasaten

OHIZ KANPOKO JAIALDIA BIHAR ARRASATEKO MONTERRON PARKEAN

Bihar bertan, larunbatean, oso jaialdi berezia ospatuko da Arrasateko Monterron parkean. Berezia, izango duen iraupenarengatik eta batez ere izango duen ikuskizun aniztasunarengatik. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da, eta goizaldeko 03:00ak arte iraungo du jaialdiak inolako etenik gabe. Jaialdiak "Dotakon festa" izena du eta -denda horretako- antolatzaileek nabarmendu duten moduan, astebururako zerbitu desberdina antolatu nahi izan dute.

Beñat Lasagabaster, Dotakon erro-pa dendako arduraduna, aspalditik dabil jaialdi berezia antolatu guran. Beñatek eta bere lagunek dagoeneko Gasteizen moda desfile bat egin zuten, eta San Juane-tan skate festa antolatzen saiatu ziren. Gerora, urte eta erdi jaialdia antolatzen ibili, eta programa polita osatu dute biharko egunerako, 10.000 soinu watio eta 24.000 watiorekin hornituko dutena.

Arratsaldeko 18:00etan jaiari hasiera eman eta giroa berotzen hasteko, Kaiet eta Beñat DJak taularatu dira. Kaietek electro musika jarri eta Beñatek musika latinoa eta brasildarra. Horren inguruan, Beñatek azpimarratu nahi izan zuen zapatuko ez dela inola ere jai technoa izango.

Azkenengo aldiz antzeztu

Jarraian, arratsaldeko 20:00etan, Gasteizko Sobradun antzerki taldeak "Herminio y Miguelito" lana antzeztuko du. Mauro Entrialgo komikilariek sortutako Herminio Bolaextra



Zuzeneko funky musikaz eta antzerki desegokiaz gozatzeko aukera paregabea egongo da.

perizonaia da protagonista, eta arrakasta handia izan du antzerki lanak urteetan. Bestalde, Sobraduneko aktoreak telebistan eta hainbat filmetan lan egin dute -Airbag, Gente Pez, Salto al vacío...-. Herminioarena lehen lana izan bazen ere, gerora beste bi lan antzeztu dituzte: "30 millones de gilipollas" eta "No hay huevos". Aspalditik antzeztu gabeko "Herminio y Miguelito", azkenengo aldiz antzeztuko dute, beraz, Monterronen.

21.15ean eta inolako geldionerik gabe, Zaragozako Telephunken musika taldeko kide batzuk DJ gisa musika dantzagarria jarriko dute, Telephunken taldekoak prestatzen diren artean. Zaragozako talde honek izen bereko euren lana aurkeztuko du, Estatu Espainiarreko aldizkarjetan kritika oso onak jaso

dituen lana. Beltzen giroko musika eta funkya da egiten dutena. 23:30 aldera, berriz, Madrileko Ama Records disko etxe entzute-suko Chema DJak afro-etno-brasilian musika jarriko die gerturatuko. Chema bera Jazz In Club eta TV People taldeetan aritutakoa da eta bakarka arituko da orain-goa.

Azkenik eta ekitaldiak amaitzeko, 1:30ean, Ortophonk taldea arituko da. Gasteizko talde berri honek funk-a lantzen du batez ere, eta oso kritika onak jaso ditu. Duela gutxi, gainera, Bilbo Hiria lehiketa ospetsuko lehenengo saria irabazi zuen Joera Berrien sailean. Taula gainean zazpi pertsona dira, eta haize-instrumentuak ere badituzte; beraz, festa eta dantza ziurtatuta daude.

Programan handiz iragarrita dauden ikuskizunetaz gain, La Sonica taldeak performanceak antzeztuko ditu, Mentxuk tatuajeak egingo ditu eta arte erakusketak ere egongo dira, gutxienez.

Proposamen berezia, beraz, bihar egingo dena. Hala ere, antolatzaileek eguraldiaren ardura dute, jaialdia Monterronen izanda haren menpe baitaude. Sarrerak 1.500 pezetatzen erosi daitezke Dotakonen bertan, eta babesa eman dioten Ekaitz, Iluntz, Etxoste eta Gasteizko Dublin tabernan ere.

Beñatek azaldutakoaren arabera, "jendeak erantzun eta festan parte hartzen badu, hemendik aurrera, urtean bi jai egingo ditugu, bata udan eta bestea neguan".

IKER BARANDIARAN

Iñaki Riviere Margolari arrasatearra

Tadao Ando arkitekto japoniarrak idatzitako liburu hori irakurtzen ari naiz. Bizi diren arkitektoen artean, Andok jaso du sari gehien. Liburu honetan, bere lanaren errepaso eta azalpen xehea egiten du. Niretako interesgarria da, izan ere, orain margotzen ari naizen margolanek lotura estua dute arkitekturarekin, eta Tadao Andoren arkitekturak niri interesatzen zaizkidan elementuak batzen ditu: argia, arkitektura eta naturaren arteko harremana, eta erabiltzen dituen materialak. Ez da edozeinen gusturako liburua; arkitekturaren interes handia duen jendeak bakarrik izango du gustuko. Oso liburu espezializatua da, baina bere estiloan, oso interesgarria, artista batek berak azaltzen duelako bere obra, eta ez beste inork.



'ESPACIO, ABSTRACCIÓN Y PAISAJE' Tadao Ando



LEIRE KORTABARRIA



IRAILERAKO UTZI
BADUZU ERE,
APARTEKO BIDAIA
ESKAINTZEN DIZUGU!

IRAILA / URRIA

Irteerak Bilbotik		
TENERIFE	(8 EGUN)	
Masaru Apt. 3G	OG	65.000 pta.
LANZAROTE		
Bitácora Apt. 2G	OB	65.800 pta.
PALMA MALLORCAKOA		
Sol Pinos Hotela **	ME	54.800 pta.
PRA GA		
Top Praha Hotela ***	OG	68.300 pta.
CIUDADES IMPERIALES		
Hotelak***	OG	92.000 pta.
Salidas desde Madrid		
CANCUN	(9 EGUN)	
Margaritas Hotela ***	OB	99.900 pta.
PUNTA CANA		
Hodelpa Caribe Hotela ****	GB	148.600 pta.
PUERTO PLATA		
Fun Royale Hotela ***	GB	111.700 pta.

Irteerak Bilbo, Madril, Bartzelonatik		
INDIA ZORAGARRIA	(8 EGUN)	
Lehen mailako hotelak	OG	168.900 pta.
JORDANIA		
Turista hotelak	PA	128.900 pta.
BUENOS AIRES / IGUAZU		
Goi mailako turista hotelak	PA	199.900 pta.
MEDITERRANEOKO IZARRAK		
Ibilaldiak: Marseilla, Erroma, Tunez,...		86.500 pta.
ITSAS BIDAIA BOLEROA		
Ibilaldiak: Napoli, Malta, Niza,...		93.000 pta.

Prezioak ez du tasarik ez dolarragatik gehigarrik baxe hartzen

HALCON
VIAJES-BIDAIAK

Norekin ibiliko zara hobeto!

091.37.03

Iraila: 14-21

Edu Mendibil | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

BERGARA

> **Interruptus** taldearen "Mesias dator" kale antzerkia egubakoitzean, hilak 14, San Martin plazan. 20:30ean. Gaztetxeak antolatuta.

ELORRIO

> **Tanttaka** antzerki taldearen "Hor dago koxka" antzeziana datorren egubakoitzean, hilak 21, Arriola aretoan, 22:30ean.

Musika

ARRASATE

> **Dotakon jaialdia** zapatuan, hilak 15, Monterronen, 18:00etatik aurrera: kontzertuak, Djak, antzerkia, performanceak, tatuajeak, proiektzioak eta arte erakusketak.

BERGARA

> **Txuma Murugarren** egubakoitzean, hilak 14, Irala kalean, 23:00etan.
> **Mermaid eta Kañeria 13** taldeak egubakoitzean, hilak 14, Gaztetxean, 23:30ean.
> **Vagon de cola** egubakoitzean Arteka pizzerian, 23:00etan.
> **Non demontre, Batzuk eta Zartateko** taldeak zapatuan, hilak 15, Gaztetxean, 23:30ean.
> **Suaren hitzak techno-jai** zapatuan, hilak 15, Jam aretoan, 02:00etan.

ELGETA

> **Akatz eta Papparazzi** taldeekin ska kontzertua zapatuan, hilak 15, Gaztetxean, gauerdian.

OÑATI

> **Mikel Urdangarin** datorren egubakoitzean, hilak 21, Oñatiko pilotalekuan, 22:30ean.

Erakusketak

ARRASATE

> **Juan Gonzalez Cuestaren** pintu-

ra erakusketa Harresi aretoan (Iturriotz 35) irailaren 30era arte. Aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> **Margo lehiaketako erakusket**a irailaren 16ra arte Beart elkarreko egoitzan (Bolu kalea 49).
> **Jose Antonio Laskurainen** margoak La Caixako bulegoan irailaren bukaerara arte.
> **Marily Untzuruntzagaren** olio erakusketa Nahikari tabernan.

OÑATI

> **500 urtez frantziskotarrak Arantzazun** izenburuko erakusketa Arantzazuko Santutegian. Goizeko 11:00etatik 19:00ak arte. Astelehenetan itxita.

EIBAR

> **Juan Jose Altuna Akizuren** margo erakusketa Arrate kultura elkartean (Zuloagatarren, 3) irailaren 16ra arte. Zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

DONOSTIA

> **Ramon Arantzabalen** margo erakusketa Kutxako erakusketa aretoan (Boulevard, 1) irailaren 30era arte.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa.** Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Jatorrizko testuen lehen argitalpena 1998, 1999, 2000 edo 2001 urteetan argitaratua egon behar du eta Internetetik hartutako testuen aintzinasuna ere egiaztatu beharko da. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak

1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 telefonoan.

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuri beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

BERGARA

> **XI. Kirol argazkien lehiaketa.** Euskal Herriko edozein afizionatik parte hartu ahal izango du eta zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira,

mota bakoitzeko lau argazki gehienez. Kategoria bakoitzeko onenak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu. Beste hainbat sari ere banatuko dira. Lanak entregatzeko epea urriaren 24an bukatuko da. Argibideak: 943 76 30 90.

DEBAGOIENA

> **Kirol materiala euskaraz sortzeko beka,** Deba arroko euskara eta kirol zerbitzuek deituta. XII. aldiaren helburua da hiru arlotako fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzen gainean, oinarriko soin hezkuntzaren gainean eta xakearen gainean. Beka bakoitzak 500.000 pezetako ordainsaria izango du. Lana egiteko epea bost hilabetekoa izango da. Eskaerak

aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

EIBAR


> **Juan San Martin beka.** Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, ikerketa-bekarako deia egin du. Ikerketa esparruak hauek lirateke: antropologia, hizkuntzalaritza, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea. Beka honen zenbatekoa 1.500.000 pezetakoa izango da. Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea urriaren 23ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 20 68 45 telefono zenbakian.



JAIK

SAN MARTINAK BERGARAN

Astebukaeran San Martin jaiak ospatuko dituzte Bergaran. Zapatuan, barazki, fruitu, gazta eta loren lehiaketa izango da San Martin plazan, 10etan hasita. Ordu eta toki berean okela gisatuaren lehiaketa jokatu da eta eguerdian Bergarako odolosteak dastatzeko aukera izango da. Nagusien danborrada gaueko 22:30ean aterako da. Domekan, San Martin egunean, 8:30ean sokamuturra, 11etan meza nagusia, 12:00etan errelleno eta tostoiaren kofradiako batzar nagusia Udaletxean, 19:00etan haurren tanborrada eta 22:00etan suzko erroberak.



**GOI MAILAKO TEKNOLOGIA
ETA SEGURTASUN OSOA ZURE ESKURA.**

Laguna Grand Tour
Dynamique 1.8 16 v (123 cv)
3.635.000 pezetatik aurrera*


MECA

ARRASATE • San Andres, 8 • 943 71 24 72
BERGARA • Amillaga, 5 • 943 76 40 60

Zatoz probatzera MECA tailerretara Bergaran eta Arrasaten.



* Stockean dauden autoak.



ESKELA

Iñaki
Saez Arreitunandia

2001ko irailaren 8an, Brievako espetxerako bidean istripuz hil zen

*Gazteak gara eta, indarra sobera
altza dezagun gora euskera
gazteak gara eta, indarra sobera
atera behar dugu, kalera!*




AEK, Txatxilipurdi, Emun Koop., AED, Euskalan,
Ekin Emakumeak, Euskal Herrian Euskaraz

ESKELA

Iñaki
Saez Arreitunandia

*Euskalgintzaren alde lanean
beti jardun duk dotore
Euskal Herria eraikitzeke
izan duk nahiko adore
Joan haizela sinistu ezinik
oraindik bagaudek ere
hire lankide guztion partez
Iñaki agur eta ohore.*



EMUNeko lankideak

URTEURRENA

Maria Gloria
Etxaniz Inza

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 16,
11:00ean,
Bergarako San Pedron.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Angel
Iñurrategi Garitano

Bergaran hil zen
2001eko irailaren 7an,
77 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Jon
Lasa Nuin

Arrasaten hil zen
2001eko irailaren 4an,
59 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose Antonio
Kortabarria Etxezarraga

"Moztu"

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 16,
11:00etan,
Bergarako San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Conchita
Alberdi Mendia

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 16,
11:00etan,
Bergarako San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Maria
Argarate Alberdi

(Jose Mari Leteren alarguna)

Bergaran hil zen
2001eko abuztuaren 22an.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.
Helbidea: Lezarri Goikua baserria*



Lazarraga, 3

943 71 61 37

Aita Madina z/g

943 71 61 17

San Lorenzo, 4

943 78 03 55

OÑATI




**CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO
ABENDUA, MARTXOA eta EKAINEN
azterketetarako ikastaro bereziak**


Tel.: 943 71 61 37

**HELDUENTZAT
INGELES OROKORRA
MERKATAL INGELESA
DBH eta BATXILER
mailetarako laguntza, etab.**

**HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Oinarrizko eta Goi Zikloak
CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO
Ket, Pet, First Certificate, Advanced
eta Proficiency**



Eguraldia



ZAPATUA, 15

Goizeko lehen orduetan laino dezent...

Nafarroako Erribera: Lainoak eta ostarteak. Errioxa: Eguzkitsua. Pirinioak: Zaparradak.

DOMEKA, 16

Goizaldean behe-lainoa egongo da...

Nafarroako Erribera: Eguzkitsua. Errioxa: Eguzkitsua. Pirinioak: Eguzkitsua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

15,3° C

ILARGIAREN ALDIAK: IRAILA



EGUZKIA: IRAILA 16a



Urkuluko urtegia

Urkuluko urtegiako ur mailak behera egiten jarraitzen du...

%79,5

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan 08:30, 12:00. Zapatuetan 08:30, 12:00, 19:30. Domeka eta jaiegunetan 09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

DEBAGOIENA

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

GARRIAOK

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Table with 2 columns: Location and Phone Number.

Zozketak

BONOLOTOA

Table with 4 columns: Draw dates and winning numbers.

LOTERIA PRIMITIBOA

Table with 4 columns: Draw dates and winning numbers.

ONCE

Table with 5 columns: Draw dates and winning numbers.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandak

DONOSTIA-GASTEIZ

Table with columns for BERGARA, ARRASATE, ESKOLA P., ARETXABAETA, and ESKORIATZA.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

Table with columns for GASTEIZ, ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, and BERGARA.

DONOSTIA-BILBO

Table with columns for DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, BERGARA, and ONATI.

BILBO-DONOSTIA

Table with columns for BILBO, ELGETA, BERGARA, ANTZUOLA, ONATI, and BERGARA.

ONATI-ARRASATE-BILBO

Table with columns for ONATI, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, and ONATI.

BERGARA-ARRASATE-BILBO

Table with columns for BERGARA, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, and BERGARA.

BERGARA-ONATI-ARRASATE-ARETXABAETA-ESKORIATZA

Table with columns for BERGARA, ONATI, ARRASATE, ARETXABAETA, and ESKORIATZA.

ESKORIATZA-ARETXABAETA-ARRASATE-ONATI-BERGARA-EIBAR

Table with columns for ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, ONATI, and BERGARA.

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑA

Table with columns for BERGARA, ANTZUOLA, IRUÑA, ANTZUOLA, and BERGARA.

Erakunde hau...



Arrasateko Udala Aramaioko Udala Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala Leintz Gatzagako Udala Antzuolako Udala



Umore giroan

David Peñalver

BI LAPUR

-Bi lapur kalien zihar eta bitxi denda baten aurretik pasatzerakuan esan dotsa batek bestiairi:

-Hi, zenbat balioko jok horrek pultseriorrek?

-Ba hiru edo lau urte kartzelan.

AMETSETAN

Gaur ametsetan egin juat, geure aittari moduan 200 milloi tokau jatazela.

-Hire aittari 200 milloi tokau jakozak?

-Bai zera, harek be ametsetan egin jok!

BIZIKLETAN

-Hi, Kaxinto, bizikletan ibiltzen ikasi dok?

-Bai!

-Eta gogorra dok?

-Etxeko hormia bai, bes-tela ez.

BIZIKLETAN IBILTZEN IKASI

Lagun artian:

-Joño, Kaxinto, bizikletan ibiltzen ikasi dok?

-Bai.

-Eta, gogorra dok?

-Etxeko hormia bai, bes-tela ez.

OPERAZIŪA

Juntau die aspaldiko bi lagun...

-Hi, eta zerena operatu habe?

-Ez jakixat, lokartu egin josten eta!

Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Epe motzean lanean aldaketak egiteko unea, egiten duzunaren truke gehiago merezi duzula uste duzu eta. Aldaketa hori, soldata gehitzeko eskaria edo lanpostu aldaketa izan daiteke.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Lan handiko astea, baina baita emaitzak biltzeko ere. Maitasun kontuak pil-pilean: bikote-kiderik ez baduzu, baten bat ezagutuko duzu, eta norbaitekin bazabiltza, une gozoak bizi-ko dituzue.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Irten kalera eta ondo pasa, etxean sartuta arazoak baino ez dituzu ikusi-ko eta. Ahalegindu zure bikote-kidearekin komunikatzaileagoa izaten, bes-tela zuregandik urrunduko da eta.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Aldaketa behar duzu, baina guztia bertan behera laga eta alde eginda ez duzu ezer lortuko. Ezertan hasi aurretik hausnartu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Lan eta estres handiak, lanean aldaketak izango dituzu eta. Zure urdailak igarri ez ditzan ahalegindu lasaitzen.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Zure asmoak alde batera utzi behar-ko dituzu, familiak behar zaitu eta. Kontuz hanka non jartzen duzun, orkatilan zainturatu izan baitezakezu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Atsedean eta lasaitasunerako astea. Familiako ospakizunak direla eta mugitu beharko duzu. Erabili bolada on hau energiak puzteko.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Lanean egoteko duzun joerak arazo-ak ekar diezazkizuke zure bikote-kidearekin. Hitz egin berarekin eta azal diezazkizue zure beharrak.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Beharrea aldaketak izango dituzu, eta ez dira zure gustukoak izango, horien ondorioz leku aldaketa izango baituzu.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Zure asmoak uste bezala ez irtearen arrazoiak bilatzeko une egokia. Beharbada, konponbidea laguntzaile-aren bat aldatzea izango da, inbidiak jota kalte egin baituzu.

AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Bakarrik egoteko gogoa eta etxean geratzeko joera izango dituzu, eta horrek zure lagunak larrituko ditu. Lanean ere, zeure kontura aritzeko gogoa, baina ez dizutenez utziko, arazoren bat izango duzu lankideekin.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Ametsetan ibiliko zara, eta kontu garrantzitsuak erdizka uzteko joera izango duzu. Hori dela eta, liskarrak izan ditzakezu ingurukoekin.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTE

Ezetx asmatu!

Estepan Plazaola



Andrazkoak ala gizonezkoak gehiago?


Debagienak (Aramaio kontatu gabe) 62.450 bizilagun zituen 2000. urteko bukaeran. Baina, asmatuko ote zenuke gizonezkoak ala emakumezkoak ziren gehiago?

- Gizonezkoak gehiago.
- Andrazkoak gehiago.

gehiago dira baina jaiotze mutli gehiago egiten da.
koak %49,78. Pertsona edadetueta andrazkoak askoz

Erantzun zuzena: Gizonezkoak %50,22 dira eta andraz-

Soluzioak



O	•	K	V	E	L	E	B
R	•	E	R	S	A	R	•
I	•	R	O	R	A	R	I
T	•	G	L	I	V	•	•
D	•	A	O	Z	O	G	•
I	•	K	A	I	•	•	•
G	•	V	A	N	A	•	•
V	•	A	I	L	E	A	•
•	•	N	A	Z	T	U	•
E	•	A	S	T	E	A	•
I	•	Z	•	•	•	•	•
L	•	E	L	A	•	•	•
•	•	A	•	•	•	•	•

Hitz gezidunak

	Izena	Aluminioa	Gipuzkoako herria
	Batrazio mota	Doministikuak	
	Ald., zaren hori	Iodoa	
	Barazki mota	Nire	
Murkari, etsai	7 eguneko epea		
Hatz gaingarri	Deitura		
			... danez, dirudienez
Hitzailera			
Modua			
	Sodioa	Kontsonantea	
	Margo	Kemen	
egina, hydrituta		Portu	
Ertia		Haizea	
		500	Jaurtiketa
		Galioa	
Nekazari	Arrain mota		
	Bete		
Arantza vesna		Erbioa	
Al., hegazti mota		Potasioa	
			Oxigenoa

Bila-bila 7



Telebegi

Mendeko
lehen
albistea

Ez dakigu mende berri honek zer ekarriko digun, baina EEBBen kontra egindako atentatua mende hasierako albiste garrantzitsuena bilakatu da. Bat-batean, eta ezer espero barik, gerra garaiko titular, argazki eta irudiekin egin dugu topo. Jaio zenetik hona, internetek eman duen albisterik garrantzitsuena izan da, egunkariak edizio bereziak kaleratu dituzte eta guztiak erraz saldu, gainera, baina guztien gainera, telebistaren indarra agerian geratu da. Telebistak zuzenean eskaini baitu tragedia. Irudiak munduko bazter guztietara iritsi dira. Ez dira erraz gaindituko egunotan telebistek lortutako audientzia kopuruak. Pantaila aurretik ezin ihes egin ibili gara.

Baina orain, hausnarketarako ordua da. Telebistako arduradunak egindako lana baloratzen hasiko dira, horrelako albiste baten aurrean zer egiteko gauza izan diren aztertzen. Datu pozgarriak kaleratu egingo dituzte, oker egin edo esandakoak etxe barruan geratuko dira.

Euskal Telebistak badu zer hausnartu. Ikasturte berriari hasiera emateko ETBk atera duen promozio iragarkia behin eta berriro datorkit burura. ETB mundura zabaldu dela saldu nahi digute, munduko txoko guztietan dagoela. Baina martitzeneko mega-albistearen aurrean, ETB, eta bereziki euskarazko katea, oso txikia iruditu zitzaidan, irudi ahula eman zuen. Lagun batek esan zidan moduan, nota jartzekotan "ez aurkeztua" nota jarriko lioke ETB-1 kateari.

Eta Eskoriatzan gertatutakoa? Martitzen gauean, bederatzia baino lehentxeago, herri osoan telebista ezin ikusi geratu! En fin, horri bai deitzen zaiola zorte txarra izatea.



Maria Agirre

Dorre Bikien aurkako erasoen lekuko

New Yorken bizi den egoeraz berba
egin digute bi debagoiendarrek

Munduko potentzia nagusiaren bihotzari martitzeneko egindako erasoak bazter guztiak astindu ditu. Erasoaldia telebistatik zuzenean jarraitzeko aukera izan genuen eta zur eta lur utzi gintuzten irudi ikusgarriek. Sarritan esan ohi da errealitateak fikzioa gainditzen duela. Oraingoan, behintzat, hala izan da. Erasoaldiaren biharamunean, Estatu Batuetan, Manhattan-etik gertu, bizi diren bi debagoiendarrekin egoteko aukera izan dugu. Galder Cristobal arrasatearrak eta Jose Antonio Rodríguez bergararrak atentatuaren osteko egunak nola bizi dituzten kontatu digute.

GALDER
CRISTOBAL
ARRASATEARRA

"Gauza guztiak arin doaz hemen, baina martitzen goizean denbora geldirik zegoela zirudien"

Galder Cristobal bedoñarrak hila-bete batzuk daramatza Estatu Batuetan. Unibertsitate bateko laborategi batean dihardu lanean, New Jersey-ko estatuan, Manhattanetik 40 kilometrora. World Trade Center-i egindako erasoak lanean zegoela harrapatu zuen. Hauxe da Galderrek Arrasate Irratiari eta GOITBri kontatutakoa: "Goizeko 08:30ean sartu nintzen lanera eta lagun bati posta elektronikoa bidali nion kontatzeko egun hartan Newark-eko aireportura nindoala, lagun batek Pariserako hegazkina hartu behar zuelako. Lagunak erantzun zidan ezin izango nuela eraman, aireportuak itxita zeudelako Dorre Bikien kontrako erasoagatik eta Pentagonoa sutan zegoelako. Benetan egoera surrealista baten aurrean nengoela iruditu zitzaidan. Apurka-apurka jendea hasi zen irratia entzuten, telebista ikusten, telefonoz deitzen..."

Atentatua gertatu eta gutxira, Galder Cristobalek Mondragoeko familiartekoekin telefonoz berba egiteko aukera izan zuen. Geroago, telefono lineak kolapsatuta geratu ziren. Ezinezkoa izan zen telefonoz hots egitea baita interneten nabigatzea ere. "Egoera arraroa zen. Gauza guztiak arin doaz hemen, baina martitzen goizean denbora geldirik zegoela zirudien. Isiltasuna, ego-



Dorre Bikiak astelehenean zutirik zeuden. Martitzeneko erasoaldiaren ostean, ez ditugu berriro ikusiko.

ENEKO AZKARATE

nezina, nagusitu zen". Galderrek Manhattanera joateko asmoa dauka, baina oraingo ezin izango da bertaratu. New Yorkera joateko trenak eta autobusak normaltasunez ibili ziren eguazten eguerdian, baina Manhattaneko 14. kaletik hegoalderako bidetik moztuta zeuden oraindik. Galderren esanetan, atentatuaren biharamunean, aurpegi serioak, tristeak, antzematen zitzaizkien amerikarrei eta mendeku eske zebiltzan. Bestalde, "enpresetan eta eskoletan ordu laurdenero jasotzen ari gara posta elektronikoa, hildakoen alde otoi ez egiteko eskatzen dute", Galderren hitzetan.

JOSE
ANTONIO
RODRIGUEZ
"TOTONI"
BERGARARRA

"Amerikarrak inozo samarrak dira eta ez dute ulertzen gertatutakoa"

Totoni Rodríguez bergararrak urteak daramatza Estatu Batuetan, 18, hain justu. Hainbat estatutan bizi izan da, baina gaur egun New Jerseyko estatuan bizi da, Newarken, Manhattanetik ordu laurdenera trenez. Jatetxe bat dauka,

El Quijote izenekoa, eta atentatua izan zeneko bezperan berandu oheratu zen. Lotan harrapatu zuen Dorre Bikien aurkako erasoak. "Andrea deitu zidan gertaeraren berri emateko. Geroago, Bergararako lagun batek deitu zidan".


Eguen goizean izan ginen harekin, hango goizaldeko ordu bietan. Haren esanetan, "amerikarrak inozo samarrak dira, politikari ez diote garrantzi handirik ematen eta, horregatik, ez dute ulertzen martitzeneko erasoaldia. Amerikarrak ez dira txarrak, jatorrak dira, eta hildakoen errugabeak dira. Herri-tarrek, gainera, elkartasun handia erakutsi dute, odola emateko New Yorkeko alkateak egindako deialdi sekulako erantzuna izan du-eta. Gobernu, oster, beste kontu bat da".

Word Trade Centerren lan egin eta bere jatetxeko bezeroak dire-


nak ezagutzen ditu Totonik. Bezero horietako bat lanean zegoen atentatua gertatu zenean. "Dorre Bikietako lehenengoan zegoen lanean eta bigarrenari eraso egin zioten lehenengo. Bezero hark kontatu didanez, lehen eraso gertatu zenean normal jarraitu zuten lanean, nagusiak ezer gertatzen ez zela eta lanean segitzeko esan ei zien. Bigarren eraso izan zenean, berriz, alde egin zuten guztiek, ahal izan zutenek, behintzat. Onik atera da".

Totonik dioenez, etsita ikusten ditu amerikarrak, negarrez, isilik, telebistari begira. Hala eta guztiz ere, dorreak berriz ere eraikiko dituztela entzuten da New Yorkeko hedabideetan. "Hildakoez ez dute ezer esaten, baina ingeniariak diote dorre berriak eraikiko dituztela. Agian, bost egingo dituzte", diosku.

ENEKO AZKARATE



Totoni, Newarren duen jatetxean, Txema Montoia eta Jon Uriarterekin.



GARBIGAILUA ETA GERO, DEBAGOIENEAN EZER EZ DA BERDIN

Eskuzko lixiba egiteko lagungarriak egon dira, baina arropa garbitu eta lehortzeko lehen makina 1855ekoa da.

1940ko hamarkadan hasi zen garbigailua mundu zabaleko etxeetan ohiko tresna bihurtzen.

Debagoienez, Bergarako Mayc izan zen aitzindari garbigailuak egiten. Mayc da goialdetik betetzen diren garbigailu-ekoizle bakarretakoa.

Fagorren abiapuntua beste produktu batzuk izan ziren, baina gerora garbigailuak egiten hasi zen, betiere aurrealdetik betetzen direnetakoak.

Egun, bi etxe horiek ari dira eskualdean garbigailuak egiten. Bien artean 1.300 langile dituzte eta 40.000 milioi pezetako salmentak urtean.

Atzeskua

MAIDER OSA

Joseba Prat/Kale-garbitzailea

Parrandazale fama duzu. Ni beti nago parrandan, goizeko zazpitan hasten bainaiz lanean eta gaueko hamarretan bukatu. Saltsa denetan egoten naiz beti, eta biziki gustatzen zait horrela ibiltzea. Bergarako jaietan nik baino hobeto inorgutxik pasatuko du. Entzierroa badago hesiak

jartzen, dantza txapelketa badago aulkiak jartzen... ekitaldiak non, ni han.

Asteburuan San Martin jaiak izango dira Bergaran...

Lan egiteko asmoa dut, beti bezala. FERIA eta danborrada antolatzen, sokamuturrerako hesiak jartzen...

Zeintzuk dira Bergarako jairik onenak?

San Martzialak. Lagun talde guztiak elkartzen dira jai horretan, eta elkarrekin hitz egiteko eta harremantant jartzeko aukera gehiago dago.

Festen ondoren kristalez zikinduta-

ko kaleak garbitzea ere ez da gozoa izango.

Plastikoak eta kristalak egoten dira gehienbat.

Begararrak zikinak dira?

Pixka bat bai. Jendea gehiago kontzientziatu behar da ingurua zaintzeko. Beti izaten da ondoan paperontziren bat, eta ez da batere kostatzen horiek erabiltzea.

Lurra garbitzen bai, baina paretak karteles josten ere aritzen zara.

Bai. Jendeak inguruko jaien eta ekitaldien berri jakin dezan gustatzen zait.

Txakurra da gizakia- ren lagunik onena?

Lehen banuen bat. Izugarri gustatzen zaizkit, baina lan handia ematen dute.

Zezenketak, zergatik ez?

Animaliek sufritu egiten dute, eta hori oso gauza zatarra da. Gainera dirutza handia bideratzen da horrelako gauzak antolatzeko,

gehiegizko dirutza. Pazkoetako jaietatik zezenketak kendu eta diru hori beste zerbaiterako erabiliko nuke.

Ama futbolzale sutsua duzu. Jaso duzu zaletasun hori?

Bai, gustatzen zait. Realzalea naiz, baina ez horren forofoa, beste euskal taldeak ere gustatzen zaizkit. Halere, iazko denboraldiaren amaieran sufritu nuen apur bat.

Autoko karneta ateratzeko asmorik baduzu?

Datorren urtean, behar bada.

Euskara ikasten ere makina bat ahalegin egin duzu.

Sei urtez iloba zaintzen aritu nintzen, eta harekin hasi nintzen euskara ikasten. Gero AEKn aritu nintzen. Irakasle oso jatorrak zeuden, eta asko ikasi nuen. Ari naiz, poliki-poliki.

Amets bat?

Euskal Herria libre izan dadila, baina Nafarroa ere barruan dela.



“Begarako jaietan nik baino hobeto inorgutxik pasatuko du”

“Jendea gehiago kontzientziatu behar da ingurua zaintzeko”

“Pazkoetako jaietatik zezenketak kendu eta diru hori beste zerbaiterako erabiliko nuke”

► Bergararra / 41 urte / Kale-garbitzailea

AIPAGARRI




ANAÑE NARBAIZA
Bergara

Bergara aldeko berbak eta “langintza zaharrak” bildumako hirugarren liburua aurkeztuko da gaur Bergaran. *Zura: arotzak eta etxegileak* da liburuaren izenburua eta Anañe Narbaiza da egilea. Galduta edo galtzear dauden ofizioen gaineko ikerketa lana egiteko Bergarako Udalak eta UNEDek sinatutako hitzarmenaren hirugarren fruitua da.



IRAITZ AGIRRE
Mondragoe

Zapatuan banatu zituzten Zurruzuno literatura lehiaketako sariak. Jaurlaritzak antolatzen du lehiaketa Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, eta 464 lan aurkeztu dituzte aurten. Sarrituen artean, hiru Debagoienekoak: Iraitz Agirre arrasatearra (lehenengo saria prosa lanetan), Oihana Agirre arrasatearra (olerki sortarik onena) eta Nagore Arriolabengoa aramaioarra (olerki sorten artean bosgarren saria).




Bainu altzariak eta osagarriak



Hidromasaje bainuak eta kabinak



Era guztietako azulejoak



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa, 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51